



Barcinaren lepoa epaileen esku



- **Jean Pierre Massias**, Zuzenbide irakaslea «Zenbat eta berantago negoziatu orduan eta kostu politiko handiagoa ordainduko du Madrilek»
- **Larrun** Herria eta eskola
- **Udalekuak** Sorrerako filosofian oinarritzen diren hiru adibide
- **Palestina** Rawabi hiri planifikatua, negozioa ala proiektu nazionala?
- **Beharsarea** Langile euskaldunen zerbitzuak eskaintzeko webgunea

Mertxe Nabaridas

GARAREN eroslea

*«Gure herriari
gure begiekin
begiratzen
diolako»*



posible egiten du

GURE AHOTSA • GURE BALIOAK • GURE HERRIA

Berari esker lortzen dugu, eta berak bezala, GARA erosten duten milaka laguni esker, gure mezua egunero 243.000 lagunengana iritea. Bere konpromiso horrek egiten du posible existitzea bai egunkari hau, bai NAIZ eta gure ahotsa gero eta jende gehiagorengana eramaten duten beste euskarri guztiak.

Gure irakurleak ditugu sostengu bakar. Alde horretatik, hedabide bakarrenetarikoa gara. Eta independente egiten gaitu horrek. Gure hedabidea aurrera ateratzeko konpromiso irmoa dugu, errealitatea ulertzeko, aldatzen ahalegintzeko eta guztiontzako etorkizun hobea lortzeko lagungarria delako.

GUZTION ARTEAN POSIBLE EGITEN DUGU



Azaleko argazkia:
JAGOPA MANTEROLA/
ARGAZKI PRESS
Azala: GARBINE UBEDA
GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginuz gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko apirilaren 28a, 2.366. zenbakia

ASTEKO GAIA

UDALEKUAK Lagun eta jolas artean bizipenetatik ikasten.
IURE EIZAGIRRE / 4

PERTSONAIA

JEAN PIERRE MASSIAS: «Ezin dugu prozesua etikan oinarritu».
SUSTRAI COLINA / 9

GAIK

RAWABI Palestinako hiri berria, negoziola ala proiektu nazionala?
ANE IRAZABAL / 14

SEXU ERASOAK Sexua nahi nuen, baina ez honela.
ONINTZA IRURETA AZKUNE / 17

IRITZIAREN LEIHOA

80KO HAMARKADA LUZEA MIKEL ZURBANO / 18
OHOREZKO SUIZIDIOAREN APOLOGIA ROSA M. MARTÍN SABARÍS / 20
EUROPAREN LURREKO AZTARNA EKOLOGIKOA MOZTEKO
ORDUA IAN FITZPATRICK / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENTETA / 19

TXANDAN Maggiren haurrak. ITXARO BORDA / 20

BERTSO BERRIAK Haur presoa. ELEUTERIO JAUREGI / 21

ZIRTAK Beste su-eten batzuen posibilitateaz. BEÑAT SARASOLA / 22

ERDIKO KAIERA

IGNACIO ECHEVARRÍA: «Kritikariak jakin behar du bere zerbitzu publikoak ez direla ongi etorriak». HEDOÍ ETXARTE / 23

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 27

LITERATURA XABIER ETXANIZ ERLE, G. UBEDA GOIKOETXEA / 28

MUSIKA IKER BARANDIARAN / 29

IHESI BAIONA-IRUÑEA Baztango bidea, ezezagunaren edertasuna.
GONTZAL AGOTE / 30

ALEA Haurrak Lertxundi kantatuz, orkestraren babesaz.
JOXEMI SAIZAR / 34

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

NAFARROAKO EGOERA POLITIKOA Aldaketa haizea erresuma zaharreko jauregietan. XABIER LETONA / 39

NEONIKOTINOIDEAK Erleak eta intsektizidak: lobbygintza ikastaro praktikoa. UNAI BREA / 42

LUZURIAGA Langileek kontatu dute Pasaiaiko fundizioaren historia.
GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 44

BEHARSAREA Lan bila bai, baina euskaraz. MARIJO DEOGRACIAS / 46

ASKE GUNEA Prentsa independenteak asko dezake, herritarrekin.
GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 48

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 49

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 49

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

ASTEKO GAIA

UDALEKUAK

Lagun eta jolas artean bizipenetatik ikasten

Udako lehen eguzki printzekin batera, gaztetxoak atzean utzi du etxeko atea. Maleta eskuan, udalekuak ditu helmuga. Bi astez lagun zaharrek elkartuko da, jolastu eta gustuko ekintzak gauzatzeko. Oraindik ez daki epe horretan uste baino gehiago ikasiko duela.

| IURE EIZAGIRRE |



URTXINTXA ESKOLA

Piraten Etxea udalekuetan, *Matxinsaltoa* jolasean: umeak jausgailuaren inguruan kokatu, erdi-erdian baloia edo globoa (matxinsaltoa) jarri eta denen artean lortu behar dute matxinsaltoa ez jaustea.

IAZ EZAGUTUTAKO LAGUNEKIN elkartzearen gaztetxoarentzat udalekua aisialdi gunea besterik ez da. Eta bat dator Harluxet hiztegiak egindako definizioarekin: “Aisialdia zereginik gabeko denbora da, atsedenezko, erosotasunezko egoera (...) nahi den eran bete daitekeena”. Ongi pasatzeko denbora, alegia. Udalekuen antolakuntzaz arduratzen diren

askok eta askok badakite, ordea, gehiago dela: aisialdia hezitzailea izan daiteke, eta udalekuak udaz gozatzeko guneak izateaz gain, sasoi horretan ere gauza ugari ikas daitezke.

Hori da Gipuzkoako Urtxintxa Eskolaren ikuspegia eta Izaro Susperregi kidearen iritziz, aisialdiko heziketan hiru zutabe garrantzitsu daude: denbora librean gauzatutakoa

izatea, askatasunez aukeratutako denbora izatea eta burutzen diren ekintzek plazera eragitea. Urtxintxak 6 eta 13 urte bitartekoentzako udaleku itxiak nahiz irekiak kudeatzen ditu eta Susperregiren kide den Xabier Ormazabalak dioenez, bai batean bai bestean elkarbizitza sortzen da. Etxetik urrun eraikitzen den elkarbizitza horren oinarria taldea da eta denek lan egiteko eta bizitzeko arau berriak onartu behar dituzte, talde horretako kide bakoitzaren erritmoak errespetatuz. “Herri txiki bat hasieratik eraikitzea bezala da”, dio.

Egunerokoan ikasia

Udaleku itxiek 24 orduz elkarbizitzeko eta egunerokotasuneko gauza ugari mahaigaineratzeko parada ematen dute.

Parte hartzen duten haur eta gazteek gauzak zaintzen eta antolatzen ikasten dute, eta autonomia pertsonala lortzen dute udalekuetan. “Aste guztian beraien motxila maneiatu behar dute eta bertan duten arropatik zein jantzi erabaki behar dute, ez dute atzetik heldurik hori esateko”, azaldu du Susperregik.

Baina balioak ez dira modu indibidualen bakarrik lantzen udalekuetan. Jarduera jakinei lotutako udalekuak antolatzen dituen Ikastolen Elkartearen ere lantzen da autonomia, Arantzan egin ohi diren 12 eta 18 urte artekoentzako Gazte Egonaldietan, esaterako. Ikusentzunezkoak dira egonaldi horietako amua eta parte-hartzaileek film labur bat sortu behar dute. Nagore Amondarain Ikastolen Elkartearen udalekuen arduradunaren esanetan, gazteei dagokie lanketa osoa: “Gidoi teknikoak egiten hasten dira eta eurek banatzen dituzte ardurak, bat zuzendarilanean jartzen da, bestea kameralari, beste bat audio-arduradun... Haiek dira protagonistak hasieratik amaierara, begiraleak kasik behatzaile lana egitera baino ez dira joaten”. Autonomia ez ezik, sormena ere lantzen dute aste horretan.

Elkarlana da egonaldietako beste ardatzetako bat. Badakite hori Euskal Udalekuetan. Abaigarko, Bernedoko eta Goñiko etxeek bakoitzak bere antolaketa izan arren, guztiek irizpide berdin batzuk dituzte. Horietako bat da elkarlana jolas kooperatibo eta ez lehiakorren bitartez lantzea. Zer diren jolas kooperatiboak? Kide guztiek hasi eta amaitzen dituzten jolasak, hau da, jarduerak aurrera egin ahala inor kanporatzen ez dutenak, galtzaile-rik gabeak. Parte-hartzaileek gozatze hutsa-

Etxetik urrun eraikitzen den elkarbizitzaren oinarria taldea da eta denek lan egiteko eta bizitzeko arau berriak onartu behar dituzte. “Herri txiki bat hasieratik eraikitzea bezala da”

Euskal Udalekuetan kontsumoa gutxitzearen aldeko apustua egin dute eta gazteek ez dute dirurik erabiltzeko aukerarik. Horren ordez, berrerabilpena eta birziklapena bultzatzen dituzte

gatik jolasten dute eta talde-lanean aritzen dira, bakoitzaren trebetasunak bat egiten dute helburu jakin bat lortzeko.

Urtxintxa Eskolak antolatutako udalekuetan ere hala egiten dute lan eta adibidez *Matxinsaltoa* jolasean aritzen dira. Ume andana jausgailuaren inguruan kokatu, erdi-erdian baloia edo globoa (matxinsaltoa) jarri eta denen artean lortu behar dute matxinsaltoa ez dadin jausi.

Parte-hartzaile guztiak dira berdinak udalekuetan eta parekidetasun hori lantzen dute egunerokotasunean. Horretarako eredu izatea bezalakorik ez, eta Euskal Udalekuetan, esaterako, izen-emate garaian dau den plazak gaintzen badira, hautatzeko zozketa beharrean bestelako irizpideak erabiltzen

dituzte, tartean nesken eta mutilen arteko parekidetasuna mantentzea. Gainera, egonaldiak iraun bitartean sexu aukera guztiak normaltasunez adierazten saiatzen dira.

Natura inguruneekin estu lotutako jolasak eta mendi ibilaldiak egiteko ere aprobetxatzen dira udalekuak, ingurumenarekiko errespetua eta interesa sustatuz. Ildo horretan, kontsumismoa gutxitzearen eta kontsumo arduratsuen aldeko apustua egin dute eta Euskal Udalekuetan, adibidez, gazteek ez dute dirurik erabiltzeko aukerarik. Horren ordez, berrerabilpena eta birziklapena bultzatzen dituzte.

Euskara eta euskal kultura

Aipaturiko hiru ereduak euskara eta euskal kulturarekiko konpromisoa dute ardatz.

Hiruetan, euskara da erabiltzen den hizkuntza bakarra –Ikastolen Elkarteak antolatutako ingeles udalekuetan salbu–. Urtxintxako Susperregiren hitzetan, aisialdia hizkuntza normalizatu beharreko esparru bat gehiago da eta garrantzi handiagoa izan dezake, eremu formaletik kanpo ateratzen delako eta beste maila bateko harremanak sortzen direlako. “Ulertarazi nahi diegu euskara ez dela gauza ofizialeterako, lau hormen artean erabiltzeko. Ez, euskaraz jolastu, ondo pasa eta lagunak egin, euskaraz bizi gaitzkeela konturaztea da asmoa”.

Horretarako motibazioa eta erabilera sustatzen dituzte Urtxintxaren udalekuetan. Hezitzaileak bi esparru horietan trebatuta daude eta taldeak osatu bezain pronto talde bakoitzaren azterketa egiten dute. Ondoren, talde bakoitzari egokitutako hizkuntza plangintza garatzen dute. Begiraleen egitekoa da



IKASTOLEN ELKARTEA



EUSKAL UDALEKUAK

Ezkerrean, Ikastolen Elkarteko ingeles udalekuetan; eskuinean, Euskal Udalekuak. “Hezitzaileak jolasa edo ekintza ludikoa ditu tresna garrantzitsu, baina azkenean tresna nagusia norbera da, ereduia emanez transmititzen ditugu gure balioak”, dio Izaro Susperregik.

eman daitezkeen egoerei aurrea hartzea. “Demagun, udalekuen lehen egunean bi haur euskaldun gaztelaniaz egiteko ohitura duten beste birekin topatzen direla. Beraien lehen kontaktua gaztelaniaz bada, lau pertsona horiek gaztelera erabiliko dute udaleku guztian. Begiralearen zeregina da hasierako unea atzeman eta sotilki egoera bideratzea. Lehen harremana euskaraz izatea lortzen badu, errazagoa izango da pertsona horiek udalekuetan hizkuntza mantentzea”.

Urtean zehar ikasgelan egindako lana udan mantentzeko, gai ugariko udalekuak antolatzen ditu Ikastolen Elkarteak. Eredu soziolinguistiko ezberdinetako gazteak kontaktuan ipini eta bakoitzak bere tokiaren eta errealitatearen ara-

berako ekarpenak egitea dute helburu udalekuok. Horretarako bizikletan ibiltzeko, surfa praktikatzeko, ikus-entzunezkoak grabatzeko, pilotan jokatzeko eta oinez ibiltzeko aukera ematen diete gazteei ekainean eta uztailean.

Euskarari zuzendutako udaleku zehatza ere antolatzen du: *Eusk(h)ara mugara*. Aurten lau txanda izango dira ekainaren 29tik uztailearen 27ra bitartean, Lapuebla de Labarcán. Lehen Hezkuntzako haurrek hartzen dute parte udaleku horretan eta Amondarainek azaldu duenez, “Euskal Herri osotik heldutako umeak herri txiki horretako plazara eraman eta herriko gazteekin kontaktuan jartzen ditugu”. Ikastola bera erabiltzen dute aterpetxe, eta herriko ikastetxe bakarra hori izateak

Norberaren interesekoak, udaleku tematikoak

Batzuek ohiko udalekuen hautua egiten dute, baina asko dira uda gai jakin batean murgiltzeko baliatzen dutenak, eta udaleku tematikoetan hartzen dute parte. Elhuyar Fundazioak Zientzia udalekuak antolatzen ditu urtero, gazteen artean zientziarekiko jakin-mina pizteko helburuarekin. 12 eta 14 urte bitarteko gazteek har dezakete parte uztaileko lehen hamabostaldian Oiartzungo Arritxulo aterpetxean egingo dituzten bi txandetako batean. Euskaraz ongi pasa eta zientziarekin gozatzear gain, berdintasun balioak landuko dituzte eta emakumeek zientziari egindako ekarpenak izango dituzte hizpide. Bertso Udalekuak berriz, uztailean eta abuztuan izango dira Zuhatzan, Bidarrain, Arrazolan, Orion, Barrian eta Irañetan.

Bertsotan aritzeko aukera izango dute 9 eta 18 urte arteko gazteek. Euren artean ez ezik, plazako bertsolariekin aritzeko parada izango dute. Natura nahiago dutenek Gautegiz-Arteagan dagoen Baratze Baserri Eskolara jo dezakete. Baserriko bizimodua erakusteko asmoz eman zioten hasiera egitasmoari eta ikasturteko programez gain, udalekuetako bost txanda antolatu dituzte, horietako bi euskaraz. Ekaina amaieran hasiko da lehen txanda eta iraila hasieran egingo da azkena —abuztuan ez da udalekurik egingo—. Jarraian ugari egiteko aukera izango dute parte-hartzaileek: behiak jetzi, perretxikoak desberdindu, erleen mundua ezagutu, baratzean ongarria bota, artilearekin ibili, kandelak egin, arrantza portuak ezagutu...

—ez dago ikastetxe publikorik— asko errazten die herrian gauzatu behar dituzten ekintzak ezagutzera ematea. Besteak beste, garai batean ikastolatik pasatako ikasleen upategietara egiten dute bisita, “haurrek ikus dezaten ikastolatik pasatako eta eremu erdaldun batean bizi direnek zer egiten duten eta ohar daitezen euskaraz bizi diren jendea ere badela”.

Euskal Herriko bizimoduaren erakusle da baita ere Euskal Udalekuetako Abai-garreko etxean egiten duten Mitologia Eguna. Euskal dantzen eta akelarrearen bitartez gure aurrekoen bizitza islatzen saiatzen dira. Bertso-afariak ere ez dira falta, ezta herri-kiroletan aritzeko aukera ere. Duela gutxi hainbat eta hainbat herritako kaleak zeharkatu dituen Korrika ere egiten dute Euskal Udalekuetan.

Hizkuntzek hainbesteko pisua duten garaio-tan, ordea, udalekuak ez dira euskara hutsera mugatzen eta Ikastolen Elkarteak ingelesezko zenbait egonaldi eskaintzen ditu. Gazteak lau astez joan daitezke Irlandara uztailean, edo ingeles udalekuetan parte hartu ekainean eta

uztailean Ondarroan, Bermeon, Zarautzen eta Sopelan. *Enjoy English* udaleku irekietan parte hartzen dutenek, berriaz, jatorrizko ingeles hiztunekin ikas dezakete hizkuntza.

Udaleku irekiak

Etartetik gehiegi aldendu gabe, udaleku irekiak ere badaude. Txikienezko eskaintza izan ohi da, goize-ro ordu batzuek beste haur batzuekin jolastu eta gauza berriak bereganatzeko aukera ematen duena. Orduetgia murriztagoa izanik, ez dute egunerokotasuneko hainbat ekintza burutzeko aukerarik ematen, otorduak, oheratzea eta dutzatzea esaterako,

baina hauetan ere bizi dituzte elkarbizitzan ohiko diren parte-hartzea, gatazkak eta desadostasunak, pozak eta haserreak. Urtxintxak Gipuzkoako hainbat udalen udaleku irekiak kudeatzen ditu eta itxiekin alderatuta, intentsitatea aldatzen dela dio Ormazabalek.

Ikastolen Elkarteak ere badu udaleku irekien eskaintza, baina kasu honetan ikastola bakoitzaren esku geratzen da antolatzea. Haur Hezkuntzako ikasleentzat dira, ekainaren

“Ulertarazi nahi diegu euskara ez dela gauza ofizialetarako, lau hormen artean erabiltzeko. Ez, euskaraz jolastu, ondo pasa eta lagunak egin, euskaraz bizi gaitezkeela konturaraztea da asmoa”.

Izaro Susperregi,
Urtxintxa Eskola

Txantxariak

Musika eta jolasak zuzenean

Familiek jolas eta dantza egiteko saio musikala. Etorri, abestu, dantzatu, jolastu eta gozatu!

Kontratazioak:

☎ 943 270 033 | idazkaritza@urtxintxa.org



Udalekuak oraindik udaleku ez zirenean

Andoni Egaña bertsolariak esana ei da udaleku izena asmatu aurretik egiten zituela udalekuak Imanol Urbietak. 1970. urte inguruan hasi ziren Zarauzko ikastolan udako egonaldiak antolatzen. Guraso talde batek, tartean Urbietak, seme-alabentzat mendi irteerak prestatu eta naturaz gozatzeko taldea sortu zuen. Arantzazun kanpin dendekin egindako irteera baten ostean, egonaldi luzeagoak egin ahal izateko Goiatzen (egun Bidegoian auzoa) zegoen Mikelandegi Zaharra baserria erosi eta beharrezko konponketak egin zituzten. “Artean Franco bizi zen eta, agian, politikoki pentsamendu desberdinekoak izango ginen guraso talde hartakoak, baina bagenituen gauza komun batzuk: gure seme-alaben heziketa, natura maitatzea eta, nola ez, euskara”, azaldu du Urbietak.

Familia euskaldun eta euskaltzaleetako 9-12 urte bitarteko neska-mutiko zarauztarrak joaten ziren Goiatzera, 30 hurreko bi txandatan. Jolasean eta kantuan aritzea, kirola egitea, herritik kanpo eta gurasoen babesik gabe elkarbizitza indartzea, naturarekiko harreman estuagoa sortzea, baserri giroa ezagutzea eta ongi pasatzea zuten helburu. Egañak *Imanol Urbietak, luzea da bidea* liburuan dioenez, “Zarauzko kaleko ume batzuentzat ez zen aldaketa hoberik.

Nivea usaina gainera kendu, eta garo eta simaurrenak apreziatzen hasi ginen”.

Gerora, egun bateko irteerak heldu ziren: Errioxara, Nafarroara eta Bizkaira. Ikasteko modurik egokiena bizitzea dela sinetsita, urtero gauza berriak egin eta urrunago bidaiatzen hasi ziren: Kantabriara, Galiziarra, Madrilera... Eta 1975eko udan Europara. Besteak beste, Paris, Suitza, Monako, Italia eta Bartzelona ezagutu zituzten, 14 urteko gazteekin. Bidaiak autobusez egiten zituzten eta kanpinetan edo fraide eta mojen komentuetan egiten zuten lo. Jakiak Zarauzko hainbat dendari eta ostalarik ematen zizkieten, baita gerora lehendakari izango zen Carlos Garaikoetxearen familiak ere —semeak egonaldietan izanak ziren eta harreman ona zuten—. Gurasoek zerbait ordaintzen bazuten ere, bidaietarako dirua urtean zehar egindako kantu grabazioetatik ateratzen zuten nagusiki. Gainera, begiraleak boluntarioak ziren.

Udalekuok oroitzeko garaian, haur haien gurasoek Urbietarengan zuten konfiantza dute gogoan Urbietak eta Kontxi Aizarnak: “Inoiz oztoporik ez zuten jarri eta lasai gelditzen ziren beren seme-alabak gurekin Goiatzera bidalita. Inoiz paper bat sinatu gabe, hitzekoa izaten zen baimena”.



IMANOL URBIETAK UTZIAK

amaieratik uztailaren amaierara. Jolasean, tailleren, kantuen eta kirolen bitartez pentsatzen zein komunikatzen, elkarrekin bizitzen, norbera izaten, eta egiten eta ekiten ikastea dute xede.

Begirale eskolak

Ikastetxeetan irakasleak eta etxean gurasoak ume eta gazteen erreferente diren gisan, udalekuetan begiraleek hartzen dute rol hori. Susperregiren ustez, “hezitzaileak jolasa edo ekintza ludikoa ditu tresna garrantzitsu, baina azkenean tresna nagusia norbera da, eredu emanetza transmititzen ditugu gure balioak”. Horregatik, begiraleak prestatzen dituzte Urtxintxa Eskolan eta udalekuetan praktikak egiteko aukera eskaintzen zaie.

Ikastolen Elkartek ere badu begirale eskola. Amondarainek azaldu duenez, azkenaldian gazte askok Espainian ateratzen du titulua,

Ezker-eskuin: Ebro ibaian, Alfaro inguruetan; Kontxi Aizarnak gogoratzen duenez, “mila izarreko ostatuan, Hotel Pitxitxi deitzen genion”; eta Parisen ikurrinarekin, Hegoaldean debekatuta zegoen garaian.

horretarako erraztasunak ematen ari direlako. Egoera ikusita, ohikoaz gain, ikastaro trinkoa eskaintzen hasi dira eta udan atera daiteke titulua, bi hilabetetan. “Garrantzitsua da, bestela eremu erdaldun bateko gazte batek 18 urterekin euskararekiko kontaktu guztia galdu egingo du, seguruenik”. Euren udalekuetako begiraleak —oso beteranoak salbu— beraien eskolan hezitakoak dira, batxilergoa amaitzean titulua ateratzeko aukera eskaintzen baitzaie. Ziurtagiria eskuratuta, udalekuetan hasten dira.

Hurbiltasun bera sentitzen dute Euskal Udalekuetako begiraleek Goñiko, Abaigarko eta Bernedoko udalekuekiko. Umetan bertan egondakoak dira asko eta egun boluntario gisa aritzen dira, hurrengo belaunaldiei garai batean beraiek jaso zutena eman asmoz. ■



JEAN PIERRE MASSIAS

«Ezin dugu prozesua etikan oinarritu»

“Zintzoa banaiz nik ez dakit zer eskatzen duen herriak... notiziak ala berriak?”.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco



Prozesua geldi omen dago.

Prozesu hau saihestezina bezain atzera bueltarik gabekoa izan arren, jakina da aitzina egiten ez badu azkenerako arriskuan egon litekeela. Beharrik ezker abertzalean nehork ez duen indarkeriari berrekiteko interesik. Politikoki suizidioa litzateke eta militarki ipurdiz gora jaustekoa. Hala, bi aktoreetatik batek ez badu gerra egin nahi nekezago errepikatuko dira Lizarra edo Loiola garaiari ezagututako su-

eten haustek. Alabaina, egoera hau ikertzeko interesgarria bezain bizitzeko kezkarria da. Batetik, prozesu berritzaile baten urratsetan goaz, eta bestetik, geroz eta kontraesan sozial handiagoekin egiten dugu topo. Euskal jendartea gatazkaren sustrai politikoari heltzeko prest dago, eta Espainiako eta Frantziako estatuek iritzi publikoarekin batera aitzinatu nahi ez izateak tentsio kudeagaitzak sor ditzake. Funtsean, bake prozesu bat gatazka asime-

JEAN PIERRE MASSIAS

triko bat da, eta inork gutxik espero zuen iragarritako ETaren porrot militarra ezker abertzalearen garaipen politiko bilakatuko zela. Bake prozesuak westernetako dueluen aldeantziak baitira: anitzetan arma gordetzen duen lehenbizikoak irabazten du. Espainia bere kontraesanen atakan dago, baina egoera ekonomikoak eragindako desorekak ez dio urratsak egiteko adorerik ematen. Hori gutxi ez eta, arrisku handi bezain zinezkoa dauka Kataluniak zein Euskal Herriak bere egituretatik askatzeko. Egun, ederki dakigu Europaren baitako independentismo erregionalaren bidea ez dela utopia bat, eta biolentziaren amaierak ezinbesteko birposizionamendua dakarrela. Horregatik, estatuentzat arlo militarra ez konpontzea beste arlo batzuei ez heltzeko modua da, etorkizun kontrolaezinen baten inguruko erabakiak atzeratzea.

Zergatik negoziatu behar lukete Madrilek eta Parisek?

Egoerak kontraesanak sortzen dizkielako eta kontraesan horiek geroz eta aurkakoagoak izango zaizkielako. Desarmae/presoak binomioaren baitako negoziaketan ez sartzeak abertzaleen aldarrikapenak sendotuko ditu, eta estatuek asumitzen nekezak zaizkien jarretara behartuko dituzte euren buruak. Giza-eskubideen Europako Auzitegiak bi aldiz kondenatu du Espainia tortura kasuengatik, Parot doktrina epai-zain dago lehen instantzian kontrako sententzia jaso ondoren... Geroz eta garbiago dago 90eko hamarkadan eta 2000. urteetan Espainiak eraikitako arsenal antiterrorista salbuespenekoa dela, askatasun eta eskubide anitz auzitan ezartzen dituela, eta biolentziarik gabeko testuinguruan nehorik ez duela halakorik onartuko. Iritzi publikoa ere mudatzen ari da. Ez dut uste Aurore Martinen auziak hainbesteko krikikrakarik sortuko zuenik orain hamar urte. Horregatik, zenbat eta berantago negoziatu orduan eta kostu politiko handiagoa ordainduko du Madrilek. Esaterako, Otegi preso mantentzeak martiri bihurtzen du, eta politikara itzultzen denean sekulako autoritatearekin agertuko da. Hala, baliteke 2013an Moncloak desarmae/presoak binomioa negoziatzeari entzungor egin ziolako, 2015 edo 2016an Espainiatik ateratzeko erreferenduma negoziatu behar izatea. Uste dut Espainiaren interesa Ingalaterrak Eskoziarekin darabilen taktika dela: independentziari buruzko erreferenduma irabazi dezaketeno onartzea, etengabe debekatuz independentisten banda indartzen duelakoan.

Parisi dagokionez, oraingoz Madrilen estrategian lerrotatzen da. Frantziako Gobernuarentzat auzi zaila baita, baina ez hain kon-

plikatua. Auzi zaila da Gobernuak gatazkan inplikatu dagoelako, armen zati handi bat Frantziako lurretan egon daitekeelako, ETA-kideak Frantziako lurretan gorde daitezkeelako, presoak daukalako, Espainiako poliziarekin eskuz esku eraginkorki kolaboratzen duelako, eta Frantzian ere indarkeria pasarteak egon direlako. Beraz, Frantziak euskal gatazka espainolen afera dela esateak ez dauka zentzurik, baina aldi berean, ez da hain auzi konplikatua aldarrikapenaren eta biolentziaren intentsitateak Iparraldean ez dutelako sekula Hegoaldeko mailarik erdietsi.

Indarkeriaren amaierarekin gatazka bukatu dela pentsatzeko tentazioa izan dezake zenbaitek?

Ez litzateke tentazio jasagarria. Batetik, ETaren arma stock-a hor dago, kontutan hartzeko arsenalak da, eta nehorik ezin du imajinatu orain dagoen tokian utzi litekeenik betiko. Bestetik, epe motzeko bozketetan hautesleen %70-80 EAJ eta Bilduren aldekoa balitz, eta hauek euren desberdintasun ideologikoak bazter utzi eta erreferendum baten inguruan batuko balira, zer egingo luke Espainiako Gobernuak? Euskal gatazka ETaren indarkeria baino askoz zabalagoa da, eta paradoxikoki, auzi hori konpontzen bada, oinarritzko galdera, independentziarena, ozenago entzungo da, Madrilentzat ukagaitzak izango diren termino legitimoetan pausatuko delako. Horregatik heldu behar liokete gaiari eragile guztiek. Badakit Madrilentzat ez dela erraza, azken 30 urteetako gobernu guztiak borroka antiterroristan oinarritu direla, etxean etsai bat topatzea espainiar jendarte post-frankistaren motore eraikitzailea izan dela... Badakit deserosoa gertatuko zaiela. Badakit norbere hautesleria mobilizatu duenari uko egitea gaitza dela, eta are gaitzagoa euskal gatazka konpontzea Espainiaren egitura politikoari buruzko debatea zabaltzea denean, baina ez dago besterik. Memoriaren gaia ere hor dago. Berradiskidetzaren inguruko galderek memoria dute ardatz, eta horrek Madrilentzat okaztagarriak diren dosierrak irekitzea dakar, trantsizio osoa zalantzan jartzea.

NORTASUN AGIRIA

Chamalières-en (Frantzian) sortua 1961eko uztailaren 13an. Zuzenbide publikoko irakaslea Baionako unibertsitatean, nazioarteko aditua da bake eta trantsizio demokratiko prozesuetan. Europar Kontseiluaren aholkulari, Lokarrik Baionan antolatutako bake foroan partaide, beste liburu anitzetan artean *Faire la Paix au Pays Basque* idatzi du.





Trantsiziorik ez dela egon diote batzuek, bigarren trantsizio bat behar dela besteek.

Espainiako trantsizioaren eredu iragana zirriboratu eta aurrera tiratzea izan da. Epe motzera balio izan die, baina orain arazoak aurpegira zartatu zaizkie, nazioarteko zuzenbidearen ikuspegitik batik bat. Egun, Nazioarteko Auzitegi Penala dago, justizia trantsizionala, eta ezin liteke diktadura batetik demokrazia batera pasa gutxienez gertatu denaren inguruko epairik gabe. Horregatik diot euskal gatazka ez dela soilik Euskal Herriko gatazka. Gatazka horrek Espainiarentzat oinarritzkoak diren bi gai ukitzen ditu, bere egitura eta bere iragana, eta jakina, zenbat eta afera oinarritzkoagoak zipriztindu orduan eta zailagoa da horiei heltzea.

Era berean, egingo nuke Espainiako Gobernuak hobe duela korapilo horiek orain askatzea, hemendik urte batzuetara askoz postura deserosoagoan askatu beharko dituelako. Mingarri bezain konplexuak izan arren, askoz hobea da prozesu hauek norberak gidatzea, egoera eta prozesua bera jasatea baino. Funtsean, De Gaullek Aljeriarekin egin zuena egiteko gai den estatu-buru handi bat falta zaio Espainiari.

Iraganak memoria zor du eta memoriak egia, baina horiek oro ez al daude negoziaketa uneko indar-korrelazioarekin lotuta?

Jakina, ez dute alferrik historia garaileek idazten. Dena den, memoriak hitz egitea eraginkortasun behar bat da, ez behar moral bat. Pragmatikoak izan behar dugu, ezin dugu prozesua etikan oinarritu, kontzeptu erlatiboegia da. Memoria behar-izan bat dela diodanean, trantsizio demokratiko edo memoria ariketa kolektiboetatik pasa ez diren baketzeak epe luzera herren gelditu direla frogatuta dagoelako diot. Zentzu horretan arras interesgarria da

“Kontraesana dirudi, baina helburuak hala eskatzen duenean, norbere burua traizionatzen jakin behar da”.

euskal gatazka, atipikoa baita frankismoan hasi eta gaur arte iraun duen neurrian. Hori ez da trantsizio faltaren seinale, trantsizioaren mugen adierazle baizik. Trantsizio hori ez da gai izan bere iraganari aurre egiteko, frankismoari kontzesio gehiegi egin dizkio. Beraz bai, memoria ariketa hori ezinbestekoa bezain konplexua da, aldi berean jendea epaitu eta zigorgabetzea eskatzen duelako. Eredu hegoafrikarra, adibidez, garbia da: egindakoa aitortu, oker zegoela esan, eta barkamena eskatzen zuena zigorgabetzen zen. Oso eredu eztabaidagarria da, hutsune handiak izan ditzake, baina nehorik ezin dezake memoria ariketa hori ekidin zela aldarrikatu. Denek dakite zertan oinarritzen den egungo Hego Afrika. Euskal Herriari dagokionez, konplikazio erantsi bat dago: alde bien arteko desoreka nabarmena. Nehorik ez du ETaren biktimen kalbarioa gutxiesten, denak gara min horren jakitun, baina askoz zailtasun handiagoak daude preso senideen gurutz-bidea ikusarazten. Ezer-tan hasi aurretik ezinbesteko orekatzea eman beharko da, eta memoria ariketa hori izango da alde bietako partaideak euren buruak galdekatzera, jokabide makurrak izan dituztela onartzera, eta euren gudari ohiak hainbeste ez idolatratzera eramango dituen. Hori da baketzea, gure aurrekoek egin dutenaz harro gaudela esan ahal izatea, euren kuraia eta kemena onartzea, baina martiri izatea bokazio bihurtu eta idealizazioan erori gabe.

Oihartzuna isilaraztea ahotsa mututzea baino nekezagoa da, alta.

Funtzionatu ahal izateko hiru erro behar ditu biolentziak: materiala, estrukturala eta kulturala. Biolentzia legitimizatzen gure etsaia munstroa dela eta beste erremediorik ez daukala zabaldu ohi da, baina hori negoziatioarekin hausten da. Norbaitekin negoziatzea bere

OFF THE RECORD

Politika

Elkarrizketatu batzuk argitaratzen dena baino askoz mami gehiago ematen diote kazetariari. Horietakoa da Jean-Pierre Massias. Asko dira hemen agertzen ez diren erantzunak. Aritu gara zuzenbideaz, Frantziar, Alsaziar, euskaraz, Lurralde Elkargoaz... Azken honi dagokionez, arazoa politikoa zela, ez juridikoa, azpimarratu digu. Erantzun batzuk sartuz eta besteak baztertu neu ere politika egiten ari nintzela pentsatu dut. Nork esan zuen inoizko gizarte apolitikoenean bizi gine-la? Politikaren arazoak al dira arazo politikoak?

gizatasuna onartzea da. Bestalde, indarkeriaren legitimizazio hori ongiaren bandoa gure egiteak hauspotzen du. Soldadu naziek “jainkoa gurekin dago” zeramatzen gerrikoetan idatzita. Memorian arakatzan hasten zarenean ordea, jabetzen zara ongiaren bandoa izango zinela baina kaltea galanki egin duzula, zure ekinbide zenbait ez zirela legítimoak, eta zure saldoak akatsak eta erruak dituela oharztean, baketze eta normalizazio prozesu batean enagiatzen zara, bidea oso arantzatsua izan arren. Normaltasunera itzultzea den heinean, oso gauza konplikatuak da bakea. Beti da nekeza normaltasunera buelta. Gerrak alde exaltanteak ditu, elkartasun hari indartsuak saretzen daki, sentimendu nobleak pizten... Ez da erraza IRA-ko komandoen buru izatetik parking bateko zaintzaile izatera pasatzea. Biolentzia ekitaldi baten ostean ez duzu jendartean zure lekua hola eta hola berreskuratzen. Horregatik lagundu behar dira gudari ohiak, komandokideak eskutik eramane, preso ohiak egoki bideratu... Baina baita borrokoak ere. Tortura erregularri eta bortizki praktikatu baduzu, edo Intxaurrendoko kuarteleko guardia zibil bat bazara eta hogei urte pasa badituzu auto azpira begiratzen neherekin fidatu gabe, ezin zara alegia

deus ez jalgi. Ulertzen dut borrokoak edo bonba-jartzaileak sendatu behar direla esatea txokantea dela batzuentzat, baina helburua ez da jende hori osatzea, bakea eraikitzea baizik. Bakerako ezinbestekoa da jendarte baretua, eta gatazkaren aktore guztiak ezin direnez kanporatu edo deuseztatu, bizimodu normala ahalbidetu behar zaie. Bai, gaixotasun soziala da gerra, errezeta aktibo eta boluntaristekin sendatzen den eritasun soziala.

Zeintzuk dira, beraz, negoziazio baten printzipioak?

Hiru aurre-baldintza daude. Bata, protagonistek argi izan behar dute negoziaketa gatazka konpontzeko dela, eta gatazka konpontzea ez dela eurek amesturiko garaipena, alde guztiek onartzeko moduko irtenbidea baizik. Negoziazioaren bidez nehorik ez lezake armen bidez lortzeko gai izan ez dena erdietsi. Bigarrenik, negoziazioa zure etsai gaiztoenekin egin behar duzu, ez lagun-minekin. Terroristekin ez dela negoziatu behar esatea lerdokeria izugarria da, denek egiten dutelako batetik, eta zurekin ados daudenekin negoziatzeak ez daukalako zentzurik bestetik. Hemen, beste paradoxa bati egin beharko dio aurre Espainiak. Nola esan dezake ez dela terroristekin negoziatu behar frankistekin negoziatu duelarik? Are gehiago, espainiar demokraziaren indar handienetakoa izan da frankistak errekuiperatu eta berriz integratzen asmatu izana. Beraz, 100.000 pertsona baino gehiago hil dituztenekin negoziatzeko gai izan badira, kapable dira terroristatzat jo zuten erakunde batekin esertzeko. Azkenik, negoziazioa norberekiko traizioa da berez. Negoziatzera zoazenean, erroitik gaitzetsi eta borrokatu dituzun printzipio batzuk onartu beharko dituzu, eta nola ez, zure bandoari onarrarazi. Kontraesana dirudi, baina helburuak hala eskatzen duenean, norbere burua traizionatzen jakin behar da. ■



Xolomozko burrunzia

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

RAWABI

Palestinako hiri berria, negozioa ala proiektu nazionala?

Zisjordaniako lehen hiri planifikatua da Rawabi, azken xehetasuneraino diseinatua. Palestinako estatuaren lehen hazitzat jotzen dute aldekoek eta kolonia itxurako nukleo isolatutzat aurkakoek. Rawabiren bilakaerak Palestinako itxura alda lezake.

| ANE IRAZABAL |

Argazkiak: Vivien Sansour

RAMALATIK 10 kilometro iparraldera atzeman daitezke garabiak. Bir Zeiteko mendixken artean ezkutatuta, eraikuntza prozesuan aurkezten da Rawabi. “Ongi etorri: bista ederrenak menditik Mediterraneora”, sinatzen du bidegurutzeko poster erraldoiak. Ez du gezurrik esaten. Bertatik Israelgo kosta guztia begiztatu daiteke, Tel Aviveko dorre altuetatik hasi eta Ashdodeko porturaino. Inguruan ez da *checkpoint*-ik ikusten, ezta base militarrik ere. Olibondoaz beteriko terrazek, bestalde, paisaia bukolikoa eskaintzen dute. Zaila litzateke Zisjordania okupatuaren bihotzean gaudela ohartzea, alboko mendixkako Ateret kolonia juduarengatik ez balitz.

Palestinako lehen hiri planifikatua da Rawabi eta 25.000 herritarren etxea izango da lau urteren buruan. Hamabost urteren buruan berriz, 45.000 biztanle hartu nahi ditu. Sektore pribatuak Palestinan inoiz egin duen inbertsiorik handiena da: bilioi bat dolar 6,3 kilometro koadroko azalera bete ahal izateko. Proiektu faraoniko honek zenbakiz beteriko hizkuntza erakargarria du. 10.000 etxebizitza, hamar

Rawabi 25.000 herritarren etxea izango da lau urteren buruan. 10.000 etxebizitza, hamar eskola, bi eliza, 20.000 lagunentzako anfiteatroa eta merkataritza-gune irekia izango ditu.

eskola, hiru meskita, bi eliza, 20.000 lagunentzako anfiteatroa eta oinezkoentzat egindako merkataritza-gune irekia. Hiri moderno eta sofistikatu gisa aurkeztu dute Rawabi erosleen aurrean. Edonork eros dezake bertan etxea, bai lurralde okupatuetoako zein diasporako palestinarek, baita atzeritarrek ere. Oraingoz, israeldarrek eta juduek ez, ordea. PAN Palestinako Aginte Nazionalaren etxebizitza-politika oso omen da zorrotza.

Baina Zisjordaniak ba al du halako hiri berri baten beharrik? “Noski baietz. Israelgo okupazioaren ondorioz ezin ditugu gure herriak handitu, beraz, ez dugu nukleo berriak eraikitzea beste aukerarik”. Gisa horretan argudiatu du Bashar Al Masri enpresari palestinarrak bere proiektu kuttuna.

Rawabiko *show room* edo saltokitik agurtu ohi ditu erosleak Al Masrik. Marokon egindako hirigintza plan erraldoiek bere izena indartu dute eta proiektu berria saltzeko ziur ageri da. Bigarren intifada amaitu bezain laster itzuli zen Al Masri Palestinara, eta segidan hasi zen eraikuntzan inbertitzen, lehenik Ramalan eta





ondoren Rawabin. Enpresariak erraz pizten du erosleen arreta: “Jasanezinak dira Ramalako gainpopulazioa eta kaosa. Guk kalitate hobeko apartamentuak eskaintzen ditugu eta batez bestekoa baino %25 merkeago”.

Hala ere, inor gutxi mintzo da Rawabik irentsi dituen lurrez. Obra hasi baino lehenago, inguruko lursailak erosi zituen Al Masrik. Aurka agertu zitzaizkion nekazariek lurra saldu behar izan zituzten ezinbestean. Bilette-sorteak auzotarren isiltasuna erosi zuten eta geroztik inork ez du lurren konfiskatzea salatu.

2011n hondeamakinak martxan jarri ziren, eta 2013ko abenduan lehen 700 familiak ezarriko dira Rawabin. Hiri berriaren ate-irekizteza bermatzeko egun eta gau lanean ari dira langileak. Bestalde, Palestinako testuinguru politiko aldakorrari ere aurre hartu nahi izan dio Al Masrik. Harrobi eta zementu-fabrika propioa ditu, eta intifada bat hasiko balitz ez litzateke hiriaren eraikuntza geratuko.

Silicon Valley palestinarra

Palestinako estatua sortzeko prozesuaren lehen hazia da Rawabi, Al Masriren iritziz: “Negoziazio mahaian baino, oinarritik eraiki behar dugu estatua”. Salam Fayyad jarduneko lehen ministroak proposaturiko sektore pribatua bultzatzeko ekimenarekin bat dator hiri berria, eta PANen bedeinkapena aise lortu du. “Palestinar berriak” ordezkatzen dituela ziur da Al Masri: “Gizarte urbano eta moderno bati bidea ireki nahi diogu. Arriskua handia da, baina proiektu nazional bat eraikitzen ari gara”.

Rawabi aurkeztu zuenetik “Palestinako Hariri” deitu ohi zaio enpresariari, baina funtsean ekimenaren aurpegia besterik ez da. Inbertitzaile nagusia aurkitzeko Qatarreko atea jo ditu Al Masrik: Qatari Diar emirerri aberatsaren inbertsio departamentuak finantzatu du obra erraldoia.

Qatarren inbertsioak hautsak harrotu ditu palestinarren artean. Halere, inor gutxi agertu da Rawabiren aurka publikoki. Ez plataformarik, ezta ekimenik ere. Ahots kritikoa bakanetakoa da Khaldun Bshara arkitektoa: “Zis-

Qatarreko Qatari Diar inbertsio departamentuak finantzatu du obra erraldoia. Khaldun Bshara arkitektoa beldur da “Qatarreko inbertsio ekonomikoaren atzean Palestinako politikan eskua sartzeko intentzioa ez ote dagoen”.

jordaniako ekonomia gidatu nahi du Qatarrek, Gazan egiten ari den bezala”. Bsharak Palestinako ondare arkitektonikoa zaharberritzeaz arduratzen den Riwaq erakundea gidatzen du. Rawabi negozio hutsa iruditzen zaio, baina interes ezkutua ere aipatu ditu: “Beldur naiz inbertsio ekonomikoaren atzean Palestinako politikan eskua sartzeko intentzioa ez ote dagoen”.

Nolanahi ere, palestinarren onespina lortze aldera Al Masrik badaki berbaldi erakarriak eskaintzen. Finantza krisia bete-betean sufritzen ari diren herritarrei 10.000 lanpostu sortuko direla zin egin die. Jadanik eraikuntza arloko 3.000 langile ditu Rawabik, gehienak ondoko herrixketako gizonetzkoak. Baina obra amaitu ondotik 7.000 lanpostu sortu nahi ditu. Al Masriren ikuspegia ez da erromantikoa, anbizio handikoa baizik: “Ez dugu logela-hiria izan nahi. Horregatik, teknologia berrietara bideratutako inbertsioak erakarri nahi ditugu. Silicon Valley palestinarra sortzea da nire iparra”.

Nortasunik gabea

Bista ederrak eskaintzeaz gain, nortasunik gabeko edozein hiri berriaren antzekoa da Rawabi. Areago, Israelgo kolonia baten funtsa hartzen diote askok. Kolonien diseinuari jarraiki, mendi magaletik abiatuta zirkuluak osatuz eraiki dituzte auzoak. Etxeek bi fatxada dauzkate, bakoitza kale banatara. Auzoak kalko hutsak dira. Zuhaitzak landatzeko egin dituzten zuloak ere zorrotz zenbatuta daude. Azken muturreraino eraman-dako planifikazioa sumatzen zaio Rawabiri.

Hala, Palestinako arkitektura tradizionalaren arrastorik ez da hiri berriaren. Bsharak kezka aztertu du Rawabiren diseinua: “Erdigune historikorik gabeko hiria da, arimarik ez duen etxe-multzua. Israelek gure herrietako erresistentzia espazioak suntsitu ostean, okupatzailearen gustura eraikitzen ari da Al Masri”.

Hedabideek ere “lehen kokaleku palestinar” gisa definitu dute. Hainbat desberdintasun baditu, ordea. Etxeak hainbat tamainako-

Palestinako arkitektura tradizionalaren arrastorik ez da hiri berriaren. “Israelek gure herrietako erresistentzia espazioak suntsitu ostean, okupatzailearen gustura eraikitzen ari da Al Masri”, dio Bshara arkitektoak

RAWABI

ak dira eta ez dituzte erabili kolonien sinbolo diren teilatu gorriak. Al Masri ez zaio kokaleku definizioa gustatzen: “Rawabin ere inguruko kolonien indarkeria sufritu dugu, beraz, ez ditut halako konparazioak gogoko”.

Izatez, mendixken gainean eraikitze eskubidea aldarrikatzen du Al Masrik. “Kolonio juduak gure mendi magaletan eraikitzen ari dira. Berdin egiteak zergatik izan behar du okerra? Hori da palestinarroi ezarri zaigun zigorra”. Rawabi izena bera argudio hori trinkotzeko erabili ohi du, izan ere, arabieraz “muinoak” esan nahi du. “Palestinarrok eraikutsi egin behar dugu hiri moderno bat eraikitze gai garelara”, dio Al Masrik.

Zer adierazi nahi du, ostera, hiri moderno esapideak? Bsharak argi dauka: “Arkitektura eta espazioaren gaineko planteamendu koloniala da. Diseinuaren bidez gobernatu nahi gaituzte. Palestinarrok badakigu nola eraiki”.

Israelen esku-hartzea

Rawabiko lursailaren azalera osoa A eremuan kokatzen da, PANen kontrol administratibo eta militarren pean. Israeliek ez duela zer esanik nabarmendu nahi du proiektuaren webguneak, erosleak ez izutzeke agian. Ez da guztiz egia, haatik. Israelen kontrolpean dauden eremuetatik pasa behar dira Rawabira iristeko diseinatu diren lau errepideak. Oraingoz, errepide bakarra egokitu bada ere, beste hirurak eraikitze baimenaren zain daude eraikitzaileak. Al Masrik ez ditu ezkututzen haren eta Israelgo agintarien arteko elkarrizketak. Baina ura da, zalantzarik gabe, ardura guztien iturria. Mahmud Abbasen Gobernuak Tel Avivekin negoziatzen ari da Rawabik ur hornikuntza propioa izan dezan, baita hondakin-urak kudeatzeko baimena ere. Al Masrik ez ditu mirakuluak promestu: “Zisjordania okupatuan gaude, beraz, ondoko hiriek pairatzen

“Gizarte urbano eta moderno bati bidea ireki nahi diogu. Arriskua handia da, baina proiektu nazional bat eraikitzen ari gara”

Bashar Al Masri, enpresari palestinarra



Bashar Al Masri, proiektuaren burua.

dituzten arazo berdinak izango ditugu. Israeliek edozein unetan moztu ditzake ura eta elektrizitatea”. Alabaina, bistakoa da harresiarren alde bateko zein besteko agintariek eskaini dioten aldeko tratua.

Rawabi proiektu handiago baten semea da, bestalde. Al Masriren iritziz, palestinarren egiazko subiranotasuna dago jokoan: “Ekimen hau inflexio puntua izan daiteke. Gure xedea da halako zenbait hiri eraikitzea, batez ere Jerikoko eta Janingo gune zigortuetan”. Hiri berriaren arrakastak, beraz, boom bat ekar lezake Palestinako hirigintza prozesuan.

Zisjordaniako errealitate zailetik urrun da Rawabi. Halaber, irla isolatu bat dela irizten dio askok. Proiektuaren handitasuna izaki, Bsharak kezka bizi du egoera: “Kontsumismo bortitz eta higiezinaren espekulazio garamatzate”.

Edonola ere, bertan biziko diren palestinarrek erabakiko dute hiriak zein nortasun izango duen. Erronka interesgarria da: okupazioari bizkarra emango dion gune isolatu bizi ala hiria irauli. Palestinarrek eraldatu dezakete proiektua. Horretarako, ordea, Rawabiren jabe egin beharko dira lehenago. ■



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

SEXU ERASOAK

Sexua nahi nuen, baina ez horrela

June Fernandez, *Pikara Magazine* blogeko zuzendariak iaz argitaratu zuen *Yo quería sexo pero no así* (Nik sexua nahi nuen, baina ez horrela) artikulua. Almeriako Prentsa Elkartearen saria irabazi berri du. Elkar ezagutzen duten gizon-emakumeen arteko sexu erasoak aztertu ditu. Emakumeak harremana izan nahi du, gero ezetz esan dio, baina gizonak ez dio jaramonik egingo. Ondorengo lerroetan erreportajearen zati bat euskaratuta jaso dugu.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

Argazkia: www.thisisnotaninvitationtorapeme.co.uk/

BLANCAREN “LEHENENGO ALDIA” bortxaketa izan zen, baina urteak behar izan zituen onartzeko. 17 urte zituen eta ikaskide batekin ligatu zuen ikasturte amaierako jaietan. Mutil bat gustatu zitzaion, eta harekin sexu harremanak izateko prest zegoela uste zuen. Baina, une batean, haren jarrera ez zitzaion gustatu eta gelditzeko eskatu zion. Hark, ezetzi muzin eginenez, hormaren kontra estutu zuen, ahoa estali zion eta behartu egin zuen. Arnasa sakon hartu eta lasaitzen saiatu zen, minik egin ez ziezaion. Lagunei kontatu zion, garrantzi handirik eman gabe: bi garagardo edan zituela eta utzi egin ziola.

Bederatzi urte geroago, umiliazioz eta abuzuz betetako bi bikote harreman izan eta gero, terapiak eta feminismoarekiko loturak indartuta, Blancak onartu zuen bortxatu egin zuela mutil hark eta lehenengo aldiz negar egin zuen.

Adabas elkarteak jasotzen dituen salaketan %15 baino gutxiagotan dira erasoak ezezagunek eginak: erasotzaileak biktimarekiko gertutasuna eta hari inork ez diola sinetsiko baliatzen du.

“Bortxaketa” entzuten dugunean oso bestelako gertaera irudikatzen dugu: gazte bat gauez dabil, ezezagun bat oldartu zaio eta basatiki behartu du. Norma Vázquez psikologoak dienez, “mutiletan egitea” da sexu eraso gehien gertatzen diren testuinguruetako bat. Alabaina, emakumei kosta egiten zaie hala direla onartzea, haien nahia baitzen harremanen bat edo sexu harremanen bat izatea.

Onarpenaren muga

Blancari gertatu zitzaiona adibide arruntenetakoa da: emakume batek gizon bat ezagutu du



Tanta arrosan: “Ez pentsa ni bortxatzeko gonbidapena egin dizudanik”. Artikulu osoa gaztelaniaz hemen aurkituko duzu: www.pikaramagazine.com

eta harekin egon nahi du, hala-ko batean ez dago gustura edo ez zaio egokia iruditu zein norabide hartu duen kontuak, eta gizonak jarraitzeko estutzen edo behartzen du.

Norma Vázquezen ustez, muga “derrigortzea da: presionatua izan bada, gizonak emakumearen ezetza onartu ez badu”. Baina Vázquezek onartzen du, sarri, erasotzailea ezaguna denean, onetsitako harremanaren eta behartutakoaren arteko lerroa oso lausoa dela. “Badira emakumeak ezetz esaten hasten direnak, baina amore ematen dute presioagatik, xantaiaagatik edo okerragorik gerta ez dakien, adibidez indarkeria fisikoa jasatea. Emakume horiek askotan ez dute bortxaketa-tzat hartzen, uste dutelako azken finean onartu egin zutela edo zirikan ibili zirela”.

Psikologoa kexu da, jendarteak ez duelako ulertzen zergatik emakumeak ez duen gartsuki arbuaitzen nahi ez duen harremana. Ez du gustuko jendeak galdera hori egitea, eta aldiz, ez hausnartzea zergatik gizon askok lehenengo ezetza onartu gabe segitzen duten. “Ezetza esatea, mantentzea eta defendatzea ez da batera erraza”, gogorarazi du.

Vázquezek azpimarratu duenez, 70 emakume inguruk parte hartutako ikerketa batean, sexu erasoak inork ez zituen salatu: “Horrelako gauzak esaten zizkiguten: ‘Ez nintzateke eroso egongo fiskalari, epaileari, medikuari... azaltzen igurtzi batzuk baino ez nituela nahi, edo bera zakartu egin zela eta beldurtu egin ninduela, edo ez nuela jakin garaiz ezetz esaten’”. Buztanari hozkaka ibiltzea da: oldartze bortitzaren estereotipoa betetzen duten erasoak salatzen dira. ■





DANI BLANCO

Mikel Zurbano

EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

80ko hamarkada luzea

THATCHEREN HERIOTZA bere agintaldia berrikusteko aitzakia izan da. Komunikabide nagusiek atzera begira jarrita bere jokabide politikoak *argilunak* izan zituela ohartarazi dute. Argien bilaketa metaforikoan hasi eta etsita utzi behar izan dut berehala. Pinochet eta Hegoafrikako apartheideko erregimena lagun zituen emakume gerrazalearen argiak ezin izango ditugu bilatu politikaren arloan. Erresuma Batuko zentro politikoa eskuin muturrera desplazatzea izan zen bere *dobain* nagusia. Bere ekarpenik aipagarriena 1980ko hamarkadaz geroztik erregimen sozioekonomikoan, Reaganekin bat eginda, bultzatu zuen iraultza neoliberala izan zen, inondik ere. Orduan ereindako estrategia ideologiko eta politikoa gaur egungo krisiaren hazia izan da. Hamarkada horretako paradigma aldaketa liberalak segida luzea izan du, batik bat Europako eraikuntza instituzionalean eta ideologikoan.

Pinochet eta Hegoafrikako apartheideko erregimena lagun zituen emakume gerrazalearen argiak ezin izango ditugu bilatu politikaren arloan

Thatcher eta Reagan bikoteak ordezkatzaren zuten iraultza kontserbadoreak lehentasunezko helburua izan zuen: komunismoaren beldurra eraginda mendebaldean eraiki zen ongizate estatuari amaiera ematea. Ekonomi interes liberala gailendu zen eta horrekin batera balore politiko atzerakorrek ere. Eta halabeharrez eman zen igoera hori, izan ere, aurreko paradigma keynesiarra ez zen gauza izan aurreko hamarkadako krisiak sortutako *estanflazio* egoera (inflazioa eta langabezi tasa garaiak batera) berriari aurre egiteko. Keynesen jarraitzaileek desenplegua menperatu zuten baina ez inflazioa. Hutsune hori betetzera etorri zen liberalismo berritua.

Azkeneko hiru hamarkadetan iraultza kontserbadorea hegemonikoa izan da arlo ideologikoan, politikoan eta ekonomikoan. Mundu guztiko *neonek*, batez ere

AEBetako Bush (semea), Rumsfeld eta abarrek segida eman zioten Thatcherek irekitako olde liberalari. Nolanahi ere, 2007an hasitako Atzeraldi Handiak zalan-tzan ipintzen ditu paradigma neoliberal horren ardatz nagusiak. Hona hemen irizpide esanguratsuenak. Baiki, gaur egungo behategitik egiazta dezakegu ildo horien errakuntzaren tamaina.

Merkatua da irtenbidea eta estatua arazoa delako axioma ezaguna da liberalismo ekonomikoan. Haatik, bistakoa da finantza merkatuek ez dutela baliabideen esleipen egokia egin, horretarako askatasun osoa eman zaienean, eta krisia larrien nozitzen ari direnak estatu ahulak dituzten herrialdeak dira. Oligopoliorako joera duten finantza bezalako merkatu disfuntzionalen arazoak konpontzeko estatu eta ikuskatzaile indartsuak behar dira. Finantza sistemari emandako irtenbidean botere publikoaren esku-hartze indartsua ezinbestekoa izan da. AEBetako eta Japoniako esperientziek oso argi uzten dute hori, baina baita Europakoak ere, nahiz krisialdiko esku-hartzea mugatuagoa den EBean. Mendebaldean indarrean ipintzen diren *egonkortze* planek instituzio publikoen esku-hartze sistematikoa eta erraldoia ekarri dute, merkatuko mekanismoetatik kanpo geratzen dira eta ekonomiaren barneko botereen arteko indarrak berrorkatzeko eta finantza eragileen galerak sozializatzeko saioa dira.


Merkatuen desarautzea da kontserbadoreen helburu ekonomiko nagusia. Horretarako oinarriak 1980ko hamarkadako erdialdean ipini zituen Thatcherek Londreseko *City* finantzarioari bere negozio hedapena erabateko askatasunarekin egiteko aukera ireki zionean. Orduan hasi ziren finantza berrikuntzak eta botere finantzarioen askatasunak elkar elikatzen. Ondoren negozio bolumena eta diru sorkuntza biderkatu egin dira finantza sistema, baina hipoteka eta kredituen titulazioa, arrisku garaiko fondoak edo bestelako produktu eratorri uherrak Atzeraldi Handiaren jatorri dira. Horiek guztiek *City*n dute iturburua eta bere ezaugarri eta profil esanguratsuenak han aurki daitezke oraindik ere. ■





<ENBATA> gaur egungo errealitateara
EGOKITU OMEN DA:

20 ORRITIK, 1'75 euskaraz



HOTS, %10a ere ez

Lerroburuak:
LABORANTZA,
EKONOMIA,
GOGOETA...

HALAKO
BATEAN
IKUSIKO
DUGU
EUSKARA?



Rosa M. Martín Sabarís

EHUKO IRAKASLEA ♦



INIGO AZKONA

Ohorezko suizidioaren apologia

NIRE AUZOKOAK bere buruaz beste egin du. Alacanten bizi da. Eta Barakaldon, Dublinen eta Menorcan. Eta Madrilen, Aaiunen eta Buenos Airesen ere bai. Bere buruaz beste egin du, baina egunkariak ez dute ezer esan. Durkheim soziologoak 1897an suizidioa arrazoi sozialetan oinarritzen den fenomeno indibiduala dela iragarri zuenetik, komunikabideek tentuz ibili behar dute suizidioaren berri emateko orduan. Arrazoiak konplexuak direla diote adituek, eta ezin direla lotu gizabanakoak egindakoak jendartearen gorabeherekin. Suizidioei buruzko albisteek efektu imitatzailea sortaraz dezaketela –Werther efektua diote– eta kontuz ibiltzeko, batez ere ahulak eta kalteberak direnekin.

Nire auzokoari ez diote dena kendu. Etxea kendu zioten, eta kalean lo egitera eramán zituen seme-alabak. Nire auzokoari lana eta lanpostua ukatu zioten eta zaborrean bilatu ohi du afaria.

Eta lurra eta nazioa lapurtu zizkiotenean, erbestean eraiki zuen herria. Eta aurreztutako sosak kendu zizkiotenean, maletak egin eta jaioteritik urrun abiatu zen. Bortxatu egin zuten eta sustraitik kendu zioten sexua izateko askatasuna, eta zauriak miazkatzen eman du geroko denbora guztia. Seme-alabak, neba-arrebak lapurtu zizkioten eta plazak bete zituen.

Duintasunaren kanpamentuak eraiki dira. Maiatzeko

plazak zapi zuriko amez bete dira, hasi eta amaitu egin dira hileta-elizkizunak eta omenaldiak, kaleratzeen aurkako plataformak, legeak, eskratxeak, sinadurak... Baina nire auzokoak, etsipenak jota, atsekabetuta, berriro esango du “ezin dut gehiago”. Eta berriro akabatuko du bere burua.

*Diruaren erreinuan,
mugarik gabeko
mundu berrian,
zeintzuk dira
zeharkatu ezin diren
mugarriak? Zenbat
lerro gorri gainditu
behar dute
arduradunek
oraindik?*

Banakakoa da desesperazioa, arrazoiak sozialak, politikoak, ekonomikoak... Eta arrazoi horien atzean erabaki estrategikoak, ezinbestekoak, hartu dituzten beste gizabanako batzuk. Ardura arduradunena da. Talioaren legea mendekuari muga jartzeko sortu zen, zelako kaltea, halako zigorra. Edozein heriotza-zigorren aurka nago, justizia sozialaren alde. Erlatibismoaren garaian, diruaren erreinuan, mugarik gabeko mundu berrian, zeintzuk dira zeharkatu ezin diren mugarrak? Zenbat lerro gorri gainditu behar dute arduradunek oraindik? Sarraski hau

eragin duten arduradunen ordua da, lerro gorri guztiak zeharkatu dituztenen ordua. Intimitatea, ospea, izena eta irudia zikinduta ikusi nahi ez badituzte, ohoreak ardura dielako izango da. Ohorea edo egin-beharrak, arauak. Bete ez dituzten arduradunen ordua, beraiei dagokie orain.

Beren burua hil bezate lerro gorri zabala iragan duten guztiek. Agur eta ohore. ■



DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

Maggiaren haurrak

MILTON FRIEDMANEN irakaspenak egiaztatu zituen Thatcher andreak Ingalaterra guztia guda zelai minbera bihurtuz. Elvis Costello aski luzaz bizi izan da *Maggiaren* hobiko lurra arraiki tapalakatzeke, berriz piztu ez dadin. Ikusi dugu Belfasteko gose grebalarien familien poza, Durhameko meatzarien buruzagiaren irria eta Ken Loachen ironia dastatu. Kazetariak errepikatu digute Thatcher zendu baldin bazen ere, neoliberal nahikoa geratzen zela oraino lurraren azalean, dakigun deboila kolektiboa segurtatzeko.

Baina pentsatzen jartzen bagara zintzoki, konturatuko gara ekonomiaren aldarean

politika eta eztabaida demokratikoa sakrifikatzean, “denak ustelak!” oihutzean larderia diktatorialagoa eskatuz, soldata sozialen egokitasuna kitzikatzean, adibidez, edo poesiaren alorrean bertan merkatuaren legea muga gisa eraikitzean, orduan bai tatxerismoa burmuinetan ohartzeko isurtzen zaigula, haren haur perestruak bilakatuz.

Friedman eta Thatcher denda-jabe txikien umeak ziren, bekadunak, beranduago zitzikatuko zituzten estatuaren laguntzarik gabe boterera sekula iritsiko ez zirenak: paradoxaren paradoxa. ■



HEMEROTEKA

Lurra ez da mugarik gabeko hornitzailea. Iturria lehortzen ari gara eta ez ditugu agortze mugak –kalkuluak ez dira gardenak– ezagutzen. Ian Fitzpatrick-ek ingurumen arloan lan egiten du. *New Internationalisten* idatzi duenez, ordea, badira landa-lurren ustiatzea eteteko moduak.

Europaren lurreko aztarna ekologikoa mozteko ordua

Ian Fitzpatrick

♦ ANTROPOLOGOA

GUTAKO ASKO oso kezkatuta gaude gure sistema ekonomikoak planetari eta gizarteari egiten dion kalteaz. Badakigu gehiegi kontsumitzen ari garela eta obesitate epidemikoari aurre egiten diogula, janariaren proportzio handi bat botatzen dugula, gure aztarna ekologikoa Lurraren bio-gaitasunaren gainetik dagoela: behar dugun guztia eman eta gure hondakinak irensteko daukan gaitasunaren gainetik. Badakigu halaber, munduko biodibertsitatea %30 gutxitu dela 1970etik. Baina zifra ikaragarri horiek gure kontzientzian sartu-atera dabilta olio orban bat balitz bezala.

Populazioaren hazkundera, elikagaien eskaria biderkatzea, bioerregaiak, zura, mineralak, espekulazio finantzarioa eta frackinga uztartzeak mundu osoko landa-lurretan trumilka sartzea ekarri du. Kalkuluen arabera, 82,3 milioi hektarea erosi dituzte azken hamar urteetan atzerriko inbertitzaileek garapen bidean diren herrialdeetan, munduko landa-eremuaren %1,7 gutxi gorabehera. Bien bitartean, lurak bereganatzeko prozesu honen benetako eskala ezezaguna da gardentasun faltagatik.

Lurreko baliabideen dependentzia horrek esan nahi du Europar Batasunak (EB) zuzen-zuzenean lehiatzen duela tokian tokiko jendeen lur premiekin. Lurraren baliabideak

geroz eta mugatuagoak izateak, haiek lortzeko lehiakortasunak, dudarik gabe, gatazken suak bizituko ditu ekonomikoki edo politikoki ezegonkorrak diren herrialdeetan, eta horrek, era berean, hornidura kate funtsezkoak etetea ekar lezake.

Hainbat talderen koalizioa (Friends of the Earth, ActionAid, Birdlife, Biofuelwatch, Compassion in World Farming eta European Environment Bureau) elkartu da Europako gobernuei eskatzeko, baita EBri ere, osotasunean, Europaren lurreko aztarna ekologikoa gutxitu behar dutela.

Hidden impacts txosteneko aurkikuntzetan oinarritu dira lurreko aztarna ekologikoa, karbono-aztarnak eta beste kalkuluak izan daitezkeen erabakien abiapuntua. Arrazoitu dutenez, gure beharretarako premiazko ditugun lur kopuruak gutxitzeko, zenbat erabiltzen dugun neurtzen hasi behar dugu.

Baliabideen neurketa argiagok ekar dezakete efizientzia handitzea, hondakinak gutxitzea, baliabideen segurtasuna handitzea eta lanpostuak sortzea industria eraginkorragoetan.

Lurreko aztarna ekologikoen indarra zera da, aukera ematen digutela gure kontsumo behar patologikoen eta Lurrak horiek asetzeko daukan gaitasun geroz eta txikiagoaren artean ekiteko. ■



BERTSO BERRIAK

Haur preso



DANI BLANCO

Eleuterio Jauregi

♦

Doinua: Gure aurreko guraso zaharrak.

Bi mila hamahiru bazko astea Valentziako partean urte terdiko ume tiki bat preso kartzela batean goizetan hartu irten kanpora gauzez berriro katean han ez da Kristo pizten ez hiltzen pentsatzen det bapatean zenbat irudi muxukatzean haur hori beso artean.


Egun on tiki goazen apapa kanporantza bere soa ama barnean gelditu zaio begirada du lausoa hala ere pozik igaro degu kanpoan egun osoa ez daki zer den giltza sarraila arma pareta presoan bainan parkean laztandu nahi du hurbiltzen zaion usoa.

Sarri gorrotoz bukatu ohi da hasten dena amodioz emazte frango bereizten dira tratu txarren ondorioz gu ere gogor jotzen gaituzte indarraren poderioz ez al zarete aspertu bada hainbeste umilazioz? garaia degu bereiz gaitezen herri bezela redios. ■



Beñat Sarasola

♦ IDAZLEA



ZALDI ERO

Beste su-eten batzuen posibilitateaz

SU-ETENEI dagokienez, askotarikoak ditugu premiazko, agerikoa da. Bakoitzak bere tregoa proposamenak eskatzen ahal ditu eta honakoa nahiko nuke aprobetxatu nirea galdegiteko: euskaldunoi buruz hitz egitearen su-etena. Hamarkada batez *Eus* oro ahantzi dezagun. Euskaltel, Euskalmet, Euskosport, Euskalbideo, Euskal Encounter, Euskotren, Eusko Ikaskuntza, Euskalhorse, Euskalterm, Euskalnet, Eusko Label. Gehiago ere badira, noski. Ez al zarete nekatu dagoeneko? Gurea zilbor polit askoa izango dela, ez dut ukatuko, baina zilbor zale handiena ere neka daiteke egunero zilborra gora, zilborra behera. Gauza bat da nork bere buruaren lotsarik ez izatea eta beste bat masturbazio obsesiboa. Gu eta gutarrak. Gu, geu eta geuself.

Gauzak horrela, hainbat neurri hartzea proposatuko nieke gure instituzio askotariko agintariei zein euskalgintza, naziozintza eta enparauetako eragileei (agian *gintza* oroz ahanztea ere ondo legoke baina beste baterako utziko dugu hori).

Lehenengo, neurri linguistikoak. Ahalik eta gehien murriztu *eus*, *eusko*, *euskal* aurrizkiak; ahal dela, ez erabiltzeraino. *Euskal* eta *tasun* konbinazioa, hori bai, erabat galarazita. Baditugu pare bat poema on askoak *euskaltasuna*-rekin eta nahikoa dugu horrekin; ez dut uste merezi duenik horiek gairatzeko saiakeretan tematzea. Beraz, euskal literatura esan beharrean, literatura esango dugu aurrerantzean. Euskal okela esan beharrean, okela. Euskal Encounter orde, Encounterra, edo nahi izatera, Enkontruba. Aski izango dugu elkar ulertzeko. Zama handia kenduko dugu gainera. Frantsesek *literature* esaten dutelarik ez duzue pentsatuko ba, Miguel Delibes, Gore Vidal edo V. S. Naipaul dutela buruan ala?

Badugu *gure* kultura, *gure* historia, *gure* gizartea, *gure* sukaldaritza, *gure* kirola aztertzen duten hamaika ikerketa-lerro, beka, tesi eta beste. Bada, hamarkada batez, *besteren* kultura, *besteren* historia, *besteren* gizartea, *besteren* sukaldaritza, *besteren* kirola aztertzeari ekingo diogu. Euskal Herritar Unibertsalaren Saria igaroko da Kanpotar Unibertsalaren Saria izatera. Lehenengo hautagaiak? Toni Cantó eta Sara Montiel (azken hau postumoki), adibidez. Gure burua unibertsaltzat aurkezteko lanetan ibili beharrean askoz ere eraginkorragoa, askoz ere solidarioagoa eta tolerantagoa baita *Munduko hiritar* tituluak zuzkitzera dedikatzea. Esan gabe joango baita gu ere zibilizatuak garela, hain zibilizatuak ezen labelak banatuko baititugu dokierki.

Prentsan ere aldatuko dira gauzak; jada ez genuke-eta idatziko gure gauzei buruz, gu, geu eta geuselfi buruz. Imaginatu, *euskal* eta *vasco* hitzak agertzen ez diren zutabeak. Bai, gezurra dirudien arren, posible da. Joseba Arregi bati, esaterako, birziklatzea egokituko zaio ezinbestez. Urte luzetan zutabe bera idazten jardun ondoren, igeriketa sinkronizatuaz idatzi ahalko du esate baterako, ezen ez euskal igeriketa sinkronizatuaz. Irakurle zorrotza ohartuko zenez, neronek ere uko egin beharko diot *euscool* manifestuari.

Moda kontuetan ere aldaketak etorriko dira. Gogorra izango da askorentzat baina bazter utzi beharko ditugu EHSF, Kukuxumusu eta *euskal* hitza edo zuri-gorri-orlegia agertzen diren kamiseta eta gisako oro. Kamiseta laranja gehiagorik ez Pirinioetan. Halaxe da, bai, iraultza zinezko bat.

Ez dira neurri samurrak, aitor dut, baina trantsizio garaia direlarik, une egokia

da aldaketa sakonetarako. Beste zilbor batzuk posible baitira. ■



Antton Olariaga



IGNACIO ECHEVARRÍA
LITERATUR KRITIKARI OHIA

«Kritikariak jakin behar du bere zerbitzu publikoak ez direla ongi etorriak»

Espainiako Trantsizioko Kultura (CT) «suntsipen handiko arma bat» argitaratu zuen Babelia gehigarri kulturalak. Hala izendatu zuen *El País*-eko zuzendariordeak Soinujolearen semearen itzulpenari Ignacio Echevarriak (Bartzelona 1960) egin zion kritika. Erreseina hura zela eta kaleratu zuten 2004an; ordutik ez du beste kritikarik egin. Belén Gopeguik CT-ri buruz jardutean, “Ignacio Echevarriak kaltetuak eta aitortuak” aipatu zituen Espainiako literaturako mundutxoaren definitzeko paradigman. Azken aldian zentraltasuna duen CT kontzeptua Echevarriak bataiatu zuen 1994ean.

| HEDO I ETXARTE |

Zein da prentsako literatura kritikariaren lana?

Egunkari-kritika genero modernoa da, hibridoa, parekatze nahiko irregular batetik sortua: kazetaritza eta bere etika batetik, kritika bestetik. XIX. mendearen hasieran sortu zen genero historiko hori, Prentsa independentearen hastapenetan. Kazetaritzarekin batera.

Kritika operatiboa da, zerbitzu publiko bat. Komunitatea eratu ahal izateko orientazioa du lan nagusia. Irakurleen komunitatearekin eta harentzat egiten du lan. Horregatik ezin da nahastu kritika iritziarekin. Bi hizkera dira.

Ez du inoiz bere tokia aurkituko eta bere bertutea, hain justu, ondo definitua ez egotea da, eta hala egon nahi ez izatea. *Trayecto* liburuan egunkari-kritika gerrillarekin alderatu nuen. Hau da: gutxi gorabehera antolatutako gorputz bat da, ez dago erabat osatua, pentsamendu aldakorra dauka, oportunistak. Hamabost urtetan jardun nuen horretan. Eta askotan objektzio nabarmenak jarri zizkidaten, esaten zidaten: “zu nola ausartzen zara hau esatera. Nondik mintzo zara. Kritikaren ze kontzeptu da zure bermea?”. Nik beti esaten nien ez nuela halakoen beharrik. Gainera, nire funtzioa aldakorra zen denboran, une berean alda zitekeen, aurre egin beharreko objektuaren arabera.

Egun autoritatea oso dago ezbaian, eta literatur kritikaria ere bai, lehenagotik.



H.E.

Bai, hala da. Paul de Man-en ideia ospetsuaren arabera kritika krisi garaietan soilik sor daiteke. Kritika bera autoritate printzipioaren krisiarekin batera jaio zen. Eagletonek aztertzen du bikainki jaio berri den burgesiaren kazetetan nola sortu zen: botere absolutuaren



H.E.

eta aristokraziaren aurkako diskurtsoa zen.

Beraz, kritika bere jatorriaren biktima izan da. Arazo horri egunero egin behar dio aurre kritikariak. Erreseinaz erreseina. Oro har, modu tentelean, mekanikoki exijitzen zaion autoritatea “letren munduko pertsonari, erudituari” eskatuko litzaiokeena da. Kritikariari nolabaiteko titulazioa galdatzen zaio, injenieriari edo arkitektoari bezala. Objektiboki demostra dezala zergatik dagoen postu horretan. Kritika errefusatzeko moduetariko bat hori da: morroiek egiten dute, letra eta kazetaritza munduko proletarioek.

Kritikariaren autoritatea neurri handi batean erretorikoa da. Kritikariak, jakina, informatuta egon behar du. Ogibideko tradizioaren jakitun. Asko irakurri duena behar du izan, baita elokuentea, abila, maltzurra ere.

Hasieran instintiboki jardun nuen, eta gero modu landuagoan. Gaztea nintzen, ni neu sentitzen nintzen deseroso: “nork sinetsiko dit?” pentsatzen nuen. Bere amak ere ezagutzen ez duen Ignacio Echevarriak zer du esateko nobela baten gainean. Eta instintiboki sortu nuen ahotsa oso inpersonala izan zen. Oso kategorikoa. Autoritatea emititzen zuen ahots bat. Eta asmatu nuen. Garai hartan, eta gaur egun, nagusi den kritika inpresionistaren aurrean autoritatea jariatzen zuen ahots bat zen –autoritarioa izatera heldu gabe–. Ez zen ‘ni’tik hitz egiten, zerbaiten izenean baizik.

Kritikari lanetan hasi eta bi urtera-edo hitzaldiak ematera gonbidatu nindutenean harritzen ziren: “ostia, oso gaztea da”. Ahots hark irakasle ukitu bat zuen, parodia puntu bat. Hau azaltzen dudanean txundimena sortzen du, arbuioa, harridura. Iritzia eta kritika bereizi behar dira: kritika iritzia da, baina bere

“Trayecto liburuan egunkari-kritika gerrillarekin alderatuen. Hau da: gutxi gorabehera antolatutako gorputz bat da, ez dago erabat osatua, pentsamendu aldakorra dauka, oportunistak”.

buruaren gainean eraikia. Esperientzia pertsonal batetik jaio bada ere norbanakoaren gainetik dagoen ideologia edo estetika baten izenean adierazten da.

Epaila janzten zara. Indarrean dauden legeak ez dituzu zuk egin baina zeuk aplikatzen dituzu. Baike. Kritika judiziala oso gaizki ikusia dago, baita mugazain-kritikaria, edo polizia-kritikaria. Metaforok askotan bat egin dute kritikariaren lana desatsegina dela nabarmentzeko. Kritikariak asumitu behar du nolabait bere lana ez dela sinpatikoa. Beste kontu bat da hain identifikagarriak diren moztarrok jantzita ez dela oso apain gelditzen. Ahalegindu behar da ertz lausoetan kokatzen. Bera kategoriatzuk inbokatzan ari da. Baina kategoriok ez dira bere jabetza.

Claudio Magrisek dio iritzia *ni*-aren hatz-marka dela. Beraz kritikariaren hatz-marka *gu* da. Eta *ni* baino arazotsuagoa da. Noski, liburu bati buruz ari garenean ez gara bi arimen arteko elkarriketaz ari. Kategoriatzuk politikoak, ideologikoak, erlijiosoak, sentimentalak, eta bestelakoak dauden testu bat dugu eskuarteetan eta hori da landu beharrekoa. Kritikariaren irakurketa interesgarria da beste irakurle batzuenarekin punturen batean bat egin edo talka sortzen duen neurrian. Eta nik *gu* hori landu behar dut, eta ez irakurketa jakin batek sortzen didan oldar soila. Horregatik da zailena poesiaren gaineko azterketa, nekeza delako sortu dizun oldarra gainditzea.

Nola zokoratu kritika? Iritziaren mailan jarritz: “hau zuk diozu baina azken batean zu ni bezalako irakurle bat zara, egunkarietan idazten duzula, beste alderik ez dago”. Kritikaren irakurleak edo erabiltzaileak berak jar-

tzen du erreseinaren eta kritikaren zerbitzuen gaineko iritzi irudikorrena. Beti du kritikariarenganako susmoa. Eta kritikariaren ikuspuntuarekin bat egiten ez duenean esaten du “morroi hau astopittoa da, ez du liburua irakurtzen jakin”. Kritikariak jakin behar du bere zerbitzu publikoak ez direla ongi etorriak. Polizia bezala: zerbitzu publikoa da baina hiritarrek erasotzat dute. Giro kultueta irakurle ia guztiek, ordea, uste dute kritikaria usurpatzailea dela eta haiek ederki egingo luketela honen lana. Hor hasten da kritikariaren sedukzio lana, elokuentzia.

Zentzu honetan, erreseinei buruz gehien interesatu izan zaidan teoria Benjaminena da. Erreseina publizitate da funtsean. Gure garaiko lengoia publizitatearena da eta kritikariak horretara moldatu behar du bere diskurtsoa txertatu nahi badu: sedukzioa, ustekabea.

Zerekin du lotura?

Helburua kritika zutabetxo batera mugatzea da, argazkitxo batekin. Boyerok [El Paiseko zinema kritikaria] egiten dituenen modukoa: okerkeriak esaten dituen morroi bat, irakurleekin elkarrizketan aritzen dena. Eta bestela zeharkako publizitatearen egitekoak hartu behar ditu bere gain. Publizitatea: informazioa alegia. Zentzu horretan kritika inoiz ez da eroso egon kazetaritzaren baitan. Eta bere senideek ez dute tartean nahi: iritzi-emailea askoz solbenteagoa da eta kazetaria ere bai. Horren adierazgarri da kritika kultur gehigarrien ghettoa zokoratu izana. Hori mendealde guztian gertatu da.

Zergatik egon nahi du irakurleak zilegitasuna kentzen dion instantzia horretan?

Ohiturak zerikusi handia du. Eztabaidatzea da ezinbestekoa. Benet-ek dio kritikaren hasiera dela zinema aretotik irtetzean hasten den elkarrizketa. Sustraitua dago kontrastea kultura

kontsumitzerakoan. Baina hau guztia populazioaren oso tarte txikiari dagokio. Asko jota populazioaren %5-10ari interesatzen zaio. Beraz helburu nagusia orientazioa da. Industriak bulimia basatia du. Salgai material gutxik dute hain oreka handia ekoizpen eta kontsumoaren artean. Eta gizarteratzeko hiru bide daude: informazio soila, publizitatea eta epaia. Azken honek eremua galdu du. Halere, kritika ez da erreseina soilik. Argitaletxea, egunkaria, liburudenda, irakurle-erabiltzaileak elementu horiek guztiak hartzen ditu kontuan.

“Erlatibismo kulturala hilgarria da kritikarako. Gatazken ukatzeak desaktibatzen du kritika”

Iritzia tonu onean inor mindu gabe egin behar da. Inutila izan behar da.

Erlatibismo kulturala hilgarria da kritikarako. Kultura ikasketak eta erlatibismo kulturala egungo kulturen printzipio gidariak dira. Gatazken ukatzeak desaktibatzen du kritika. Baina gogaikarria izatea ere bada erreseinagilearen lana.

Zergatik diozu kazetaritzak egunkari-kritika baztertu duela?

Kritika azaltzen duen egunkariaren ideologia erraz definitzen dugu. Irakurleak badaki. Era berean oso erraza da imaginatzea ekonomia-aren atalaren irakurlea nolakoa izango den. Politikakoa zailxeagoa da. Motorrari buruzkoa erraza, baina hezkuntzakoak? Edo gizar-te gaitakoak? Egunkariak imaginario horrekin egiten dute lan, optimizatu nahi dute eta irakurle guztiak nahi dituzte. Horrek arazo handia sortu dio kritikari: zer irakurlerentzat da? Kazetaritzarentzat ez da eroso, irakurle unibertsala delako bere hipotesia: gizarte osorako da. Ados, baina zenbatek irakurtzen du? Zenbatek du gutxi gorabeherako prestakuntza? Tolstoi aipatzen badut zenbatek eza gutzen du? Honela definitzen duzu erabiliko den hizkera formala. Izokin koloreko orrialdeak hartu eta ez ditut izenburuak ere ulertzen. Eta ez zaie ardura? Egin inkesta bat,

INAKIBEREZIARTUA
Enbalajeak · Biltegiatzea eta Logistika · Zerra eta eraikuntza

25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75 · HERNANI · (Gipuzkoa) · ☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com · mjm@inakibereziartua.com

ogiaren egia

Zatoz eta ezagutu garai batean egiten ziren ogiak, lehengo osagai eta teknikekin

Galparsoro
OKINDEGIA

Antzinako ogiaren kabia bihurtu baitugu denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

galdetu zer den IBEXa eta ea zenbatek duten erantzun gutxi gorabeherakoa. Gero, egin kulturaren gaineko oinarritzko galdeketa. Ziur naiz kulturaz gehiago dakiela jendeak.

Espanian, kazetaritzak ez du lan hau egin. Ez du definitu zein den bere kultura saileko irakurlea. Ezta zer hizkera erabili behar den. Horregatik langa oso baxu jartzera behartzen zaituzte. Schubert idazten baduzu “musikari alemana” gehitu behar diozu. Baina ez dakienari interesatzen zaio musika kritika? Gehigarri kulturaletan ere ikusten da: argazki pilo. Zertarako? Seduzitzeko? Produktu horren erabiltzailea ez dena erakartzeko? Kontuan hartu gabe, badela irakurle bat kolore eta argazkirik gabe testua irakurtzera doana.

Hau funtsezkoa da. Hatsapen gero eta landuagoak orduan eta aberatsagoa izan daiteke kritika. Nik azaldu behar dut: gaia, autorea nor den, generoari buruzko zertzeladak, bildumari buruzkoak eta dena 400 hitzetan. Ez du deustarako balio.

CT kontzeptuaren funtsa da kontsentsua kulturaren amaieraren hasiera dela.

Bai. Liburuak tesia dauka. Eta ni ez nator bat. Tesiaren arabera CTa fenomeno bukatu gisa azter daiteke. CTaren klima hautsi dela uste dut, baina kontu nazionalari dagokionez. Kontu sozialean erresumin handia badago ere ez dago sintoma argirik, ez dago aurkako mobilizazio nabarmenik.

Kulturaren alorrean, zehazki, garbi gera dadila CTren liburua Frankenstein bat dela. Gehiago da keinu iradokitzailea, saski-naskia. Kategoría estridente bat abian jarri genuen arrisku guztiak kontuan hartuta. Liburuak dio M15arekin-edo amaitu dela CT. Baina oso nazioarteko fenomeno da. Kultura globalizatua, polemikaren printzipioaren desaktibazioa, klase ertaina ez den guztia zentrotik kentzea. Denok hor gelditu nahi izatea, ez diezazuten egotzi aristokrata izatea, edo prepotentea. Ez dirudi diskrepantzia berriro aktibatzen aukera dagoenik, are gutxiago bortizkeria. Krispazioa. Haserrea. Arrazoi objektiboak badaude ere kontrakoa pentsatzeko. Kulturatik bertatik zilegitasuna eman behar litzaioke horri gutizari, adibidez.

CTa deskribatzeko erabiltzen da *Soinujolearen semea*-ren afera. Zergatik zentraltasun hori?

Erreseina horrek balio izan zuen, oso ona izan zen kritikaren egoera azaltzeko. Argudiatu zuten politika kritikatik kanpo egon behar zela. Politikaren eta bere baitan nazionalismoaren tabua azaleratu ziren. Baita aspalditik Espainian egiten den kritikaren arazoa: literatura diskurtso formalizatu gisa ulertu behar da. Hortik ezin zara atera eta esan “aizue

liburu hau ETArri buruzkoa da” eta liburuak ez zuenez ETA aipatzen guk ere ez dugu ETArri buruz hitz egingo.

Literaturaren bertuteetako bat baldin bada denari buruz jardun dezakegula, kritika horren ostekoekin demostratu zen ezetz. Sentimenduetatik haraindi ez hitz egin ezeri buruz. Topiko guztiak erabili ziren deslegitimatzeko: iritzia zela, politika tarteko zegoenez lana ez zela balekoa (Manos Blancas-ekoa nintzela esan zidaten eta oraindik jasotzen ditut halako irainak). Politika leku jakin eta bakarretik egiten nuela egotzi zidaten. Eta defendatu nindutenek ere zioten zen zentsuraren aurka zeudela. Baina ez zen eztabaidarik ireki Atxagaren liburuak esan eta erreseinak erantzuten zioenari buruz.

Abiapuntua oso TK zen, bai Espainian eta bai Euskal Herrian: ez hitz egin arazoei buruz. Atxagak hori egin du historikoki: Euskal Herriari buruz hitz egin Euskal Herriari buruz hitz egin gabe. ETA aipatu gabe, gainulertu bat sortuz. Lirikotasunak dena estaltzen du. Bere proiektuan kultura maskaratzeko elementu bat da. Gune bat sortu du tentsio guztiak desaktibatzen. Hori hausteko ekintza zorrotzat jo zen. Frankotiratzaille bat, inkontrolatu bat, artxinazionalista espainiar bat. Eta horrela gutxietsi zen erreseinaren zaratatxoa. Zorionez, *El País*-etik alde egitean nolabaiteko alarma piztu zen. Egunkariari min egin zion, baina ez da ezer aldatu.

Azkenean CTko kideek lortu dute haien literatura engaiatua dela sinetsaraztea.

Bai. Kultura hain dago entrenatua honezkero inork ez duela pentsatzen Atxaga eufemismoak erabiltzen ari denik. Espainiara esportatzen den idazle galiziarra eta euskalduna ikustea besterik ez dago. Manuel Rivas eta Atxagarena ia idazlearen eredu antropologikoa da. Kataluniako idazleekin ez da hala gertatu. Quim Monzó ez da idazle katalana, idazlea da, eta ez du arrakasta handirik Espainian. Nahiz eta euskal gatazka basatiagoa izan, funtsean, antropologikoagotzat jotzen da esportatzean. Hori ezin da Kataluniako kulturarekin egin. Interesgarria litzateke galdera hauetan sakontzea, zergatik segregatu diren Galizia eta Euskal Herria eta ez Katalunia.

Zergatik PSOErekiko erra hori?



PSOE da Espainiako kultura garaikidean egon den dramarik handiena. Lortu du kultur munduko pertsonaiak bereak izatea 80ko hamarkadatik eta polemikarik ez sortzea. Hala ahalbidetu du eskuina kulturarekiko ezaxolatia izatea ere. ■

“PSOE da Espainiako kultura garaikidean egon den dramarik handiena”



Puzzlea

Koka ezazu atal bakoitza dagokion tokian eta Ramon Saizarbitoria idazleak esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Erraza


		7		1				4	
	6			7			9	3	2
	2				3			1	6
7					6	9	5	2	
6		2	8		7	1			4
	9	4	1	2					8
8	7		2						5
2	4	6			1				8
	1			8		2			

Zaila

			5		1				9
		9		7					5
5	2				6	1			
4	5								3
			8		4				
1						8			4
		3	4			2			8
2				3		5			
	6		1		5				

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.



1.-Lorea. 2.-Oinez mugitu. 3.-Une. 4.-Ile-multzko trinko. 5.-Antza, itxura.

Kike Amonarrizen umorea



Patatak eroatera

Txiste hau Jonjo Agirrek bidali digu. Milesker, Jonjo! Azken bola da honetan ez ditugu asko jaso eta ea zuek ere animatzen zareten!

Bi emakume, elkarren lagunak, kafea hartzen:
– Zer duzu ba?
Kopetilun zaude...



– Bada, senarra bidali dut bazkaria egiteko patatak eroatera; bidean auto batek harrapatu eta hil egin da!
– Ez esan! Eta zer egin behar duzu orain?
– Ez dakit ba. Makarroiak...

Soluzioak

Erraza

9	3	7	6	1	2	8	4	5
1	6	5	7	4	8	9	3	2
4	2	8	9	5	3	7	1	6
7	8	1	4	6	9	5	2	3
6	5	2	8	3	7	1	9	4
3	9	4	1	2	5	6	7	8
8	7	3	2	9	6	4	5	1
2	4	6	5	7	1	3	8	9
5	1	9	3	8	4	2	6	7

Zaila

3	7	8	5	4	1	6	9	2
6	1	9	3	7	2	4	8	5
4	8	2	1	7	9	6	3	5
9	3	6	8	5	4	7	2	1
1	2	7	6	9	3	8	5	4
7	5	3	4	6	9	2	1	8
2	9	1	7	3	8	5	4	6
8	6	3	1	2	5	3	7	9

Puzzlea:

“Truimen hutsa psikotikoek bakarrik dute ia; ni ez naiz psikotikoa, jainkoari esker neurotikoa naiz, eta neurotikoa ok errealtateari itsatsita gaude.”

5x5:

1. Lila. 2. Ibil. 3. Lipar. 4. Iajje. 5. Aire.



Haur literatura

Txikitzen zaretenean
Uxue Alberdi

Irudiak: Aitziber Akerreta
Pamiela-Kalandraka, 2013

Haurtzarora itzuli

“GURASOEI loak hartu aurretik kontatzeko ipuina” eskaintzen digute Alberdik eta Akerretak liburu honetan. Eta egia esan, hau ez da ipuin bat, edo ez normalean ipuintzat hartzen ditugun horietakoa; liburuan haurrek helduei kontaturiko zenbait ideia agertzen dira, zer egin ahal izango duten heldu horiek txikitzen direnean. Hasieran, esaterako, honako hau aurki dezakegu: “Txikitzen zaretenean ez duzue lanera joan beharrik izango. Horren ordeztatu putzuetan salto egingo duzue zapaburu bihurtu arte”, eta horrekin batera irudi bat, lapitzez marraztua eta zuri-beltzeko irudi horretan bi ume koloreztatuak, txamarra berdeak, praktura urdinak, bota gorriak eta uretan plisti-plasta ari direla.

Liburuak, albumak, horrelako eskema jarraitzen du orrietan barrena; haurrek helduei azaltzen dizkieten egoerak, zenbat gauza egin ahal izango dituzten txikitzen direnean, eztabaidatu, lisatu edo sukaldean aritu beharrean, eta horrela haurrak azalduko zaizkigu helduek txikitzen direnean egin ahal izango dituzten kontu horiek egiten, batzuetan, kontraste moduan, ideia hauen aurrean helduen oraingo jokabide gris, formal, zuzena agertzen delarik.

Amaierak, baina, aurreko erritmoa hautsiz, bestelako ikuspegia erakutsiko digu. Koloretako orri batean haurrak ageri zaizkigu, irribarretsu, eta helduen janzkerarekin horietako zenbait. Amaierako testuak koska bat gehiago sorraraziz helduei lasai egoteko esaten die, helduoi lasai egoteko esaten digute haurrek: “Eta egun handi horretan, txikitzen zaretenean, hemen egongo gara gu zuek zaintzeko. Gose bazarete bularra emango dizuegu, eta nekatuta bazaudete, kulunkatuko zaituztegu loak hartu arte.”

Egia esan liburuak irakurketa ezberdinak eskaintzen dizkigu, sinpleena eta agian haurrek umore ikuspegitik hartuko duten irakurketa horretatik gure gizarte honetan zahartzarora haurtzarorako buelta interpretatzen duen irakurketa horretaraino; baina edozein kasutan irakurleak liburuaren erritmoarekin, irudien interpretazioarekin, kontrasteekin, ideien garapenarekin edo ateraldiekin disfrutatuko du. Aitziber Akerretaren irudiak nahiko sinpleak direla ematen du, baina kolorearekin eta formekin ederki jolasten du ikuslea berak nahi duen tokira bideratzeko, garrantzia, azpimarratzekoa, bizitasuna non dagoen eta non ez adierazteko.

Istoria lehen pertsonan narraturik dugu, gu, eta helduei zuzendurik dago, zuek. Horrek, arestiko ideiak are gehiago indartzen ditu. Irakurlearen identifikazio kolektiboa bilatzen da, eta lortzen dute egileek. Horren aurrean, liburu irakurle horien eskuetan jarri dugun bitartekariok gaude, liburuaren benetako hartzaileok izan beharko ginatekeenok. Izan ere, txikitzen garenean istorio hori kontatuko digute loak hartu aurretik. ■

Xabier Etxaniz Erle



Zer da artea?
Aritz Gorrotxategi
Meettok, 2013

Artea zer den

MEETTOK argialetxeak Lev Tolstoi idazlea eta hark arteaz idatzirik *Zer da artea?* saiakera hartu ditu abiapuntutzat, kulturaz solas egiteko. Saiakeraren gaineko hautaketa lanak osatzen du liburuaren lehen zatia eta Aritz Gorrotxategi egina da. Baita itzulpena eta hitzaurrea ere. Liburuaren bigarren zatian Tolstoiren testuez, gogoetaz eta arteaz dihardute Gorrotxategirekin, Bernardo Atxagak, Harkaitz Canok eta Andoni Egañak.

Tolstoik bere obrarik entzute-suenak –*Gerra eta bakea* eta *Ana Karenina* eleberriak– gaitzetsi egin zituen saiakera honetan, arte faltsua direlakoan. Halaber, Dante, Shakespeare, Goethe, Beethoven edo Baudelaire egile klasikoaren lanez ere beste horrenbeste esan zuen. Tolstoiren ustez, artea sentimendu baten transmisioa da, eta gizakien senidetasuna behar luke helburu.

1898. urtean eman zuen argitara *Zer da Artea?*, baina hura baino lehentxeago dagoeneko aurreratuak zituen zenbait ideia. Tolstoiren ustez, zientzia eta artea herriaren gehiengo langileak bizi zuen miseriaren errudun ziren, eta garai bateko kasta menderatzaileen lekuan (Eliza, Estatu, Armada) eroso jartzen hasiak ziren berekoikiaren apologia egiteko.

Artea subjektibotasunaren eremutik ateratzea zen Tolstoiren helburu nagusia. ■

G.U.G.





Hirugarren azala
Anger

Bonberenea Ekintzak,
2013

Amorrua bideratzeko ere emankorra

ARRASATEKO –barkatu, Musakolako– Anger taldea Brutal Melodyk, Anestesiak eta Ktulu-k, besteak beste, liluratuta zituzten 15 urteko gaztetxo batzuek sortu zuten orain dela hamarkada eta erdi. Musika gogorra egin nahi zuten, zuzena, eta metal eta hard-coretik edaten zuena. Instrumentuak jotzen ikasi artean, abestiak idatzi eta tanatorio azpian –uzten zietenean– entsegatuz, zuzenekoak egiten hasi ziren. Erreferentziatzko taldeak errebindikatu, bidegabekeriak salatu eta espresatzeko beharra... Zerrenda oso luzea zen eta hastapenetako emaitza gordina, iragazi gabekoa. 2000an *Zuhaitz leborra ereiten* maketa kaleratu zuten; eta bi urte geroago, *Gara*-k musika talde berriei bultzada emateko ekimenaren baitan, *Jarraitzen dugun itzala*.

Beste beharrian batzuen ondorioz, taldearen erritmoa motelduz joan zen, baina Angerrek beti erakutsi du nortasun propioa eta ingurukoek zer egin bost axola haiei; zer esanik ez Arrasateko giro punk-Oi! zein rockeroan. Hala, El Corazón del Sapok, Bap!-ek, At The Drive In-ek, Dut-ek eta Bonny M-ek, besteak beste, gero eta leku handiagoa hartu zuten beraien DNAn. *Biluztu* diskoan Arrasateko eta Euskal Herriko gazteriarri zuzendutako (auto)kritika gupidagabe eta egiazkoa egin zuten. Hortik aurrera bidea aukeratua zuten, egitekoan erabat asmatu zutelako: gizartearen eta giza-kiaren (auto)manipulazioa sakon landu, metalaren irmotasuna, melodia borobilak, eta post-hardco-

reak ahalbideratzen duen intentsitate eta giroen joko aberatsa lagun dutela. *Sedukzioak* bide horretan disko are eta trinkoagoa izan zen, indartsuagoa eta landuagoa.

Eta orain *Hirugarren azala* erakustera datoz. Bada “metala traizionatu zuen taldeak Van Halen eta Pink Floyd-en estiloko logoa aukeratu duela” dioenik, baina txantxetatik haratago laukotearen beste disko kontzeptual baten aurrean gaude. Beste batzuek ezarritako gidoiaren pean aritzen garen ‘itxurako’ agertokia deskribatzen dute, norbanakook norbanako izateari uzten diogula. Eta musikaz janterakoan Portugal Txikiko estudioan inoiz baino gehiago espermentatu, arakatu eta mimatu dute emaitza –oraingoan ere– Josema Linazisororen laguntzaz. Metalaren indarrak riff-etan datza oraindik –Beñato bizi den artean–; baina post-hardcorearen adieretako asko ere, baina tenpo-erdiko giroak eta emo-arekin koketako ere nagusituz doaz, eta bada pieza jostariago –*Angerren marka*– zein eroagorik ere –*At The Drive In Musakola*–; eta gai izan dira kantu bakoitzari intentsitate sakonagoa gehitzeaz gain, ehunka erritmo, kolore eta giroz janzten. Funtsean haserrea, komunikatzeko nahia, behatzeko modua eta urteek emandako jakituria ezinhobeto kanalizatzen dakite! ■

Iker Barandiaran



Petti, Harkaitz Cano eta Joxan Goikoetxea.

“Gau-beranduan” ikuskizun musikal poetikoaren
Estreinaldia

Maiatzak 4, larunbata, 22:00tan

Usurbilgo **Sutegi** kultur etxeko **auditorioan**

Sarrerak: Lizardin 8 € aldez aurretik,
10 € egun berean (takilan)

Antolatzailea: **Jexux Artze Kultur Elkarte**

Babeslea:



Laguntzailea:





Euskal Herria ezagutzuz
BAIONA-IRUÑEA

Baztango bidea, ezezagunaren edertasuna

Euskal Herria zeharkatzen duten Donejakue bideetatik ziurrenik Baztangoa da ezezagunena. Bi hiriburu lotzeko balio du bide zaharrak, bost egunetan erraz aski egiten ahal da oinez Baiona eta Iruñea arteko tartea. Paisaia paregabeekin gozatzeaz gain, gure herria hobeki ezagutzeko parada eskaintzen du ibilaldiak.

Testua eta argazkiak:

| GONTZAL AGOTE |

DONIBANE GARAZI eta Orreagatik igarotzen den Donejakue bidea da gaur egungo erromesek gehien erabiltzen dutena. Horren ondoren, Lapurdi, Gipuzkoa eta Bizkaia lotzen dituen kostaldeko bidea da ibiliena. Baina askok ezagutzen ez duten arren bada hirugarren aukera bat, Baztango bidea.

Urte luzez ahaztu samar egon den arren, Erdi Aroan oso bide garrantzitsua izan zen Baztangoa. Erromes askok hartzen zuten bide hori, batetik Otsondoko mendatea Ibañetakoa baino erosoagoa delako; bestetik, seguruagoa omen zelako.

Azken urteotan Bertizeko Partzuergo Turistikoak, Baztango Udalak eta tokiko beste erakunde batzuek bide zaharra errekupeartzeko ahalegina egin dute, eta gaur egun azpiegitura zein seinalizazio oso txukunak ditu. Hala ere, oraindik oso erromes gutxi segitzen du Baztango bidea –2012. urtean 566 zenbatu zituzten ofizialki–; horregatik, erabateko lasaitasunez ibiltzeko aukera eskaintzen du.

Hortaz, ez da aitzakiarik Baiona eta Iruñea arteko bidea oinez ez egiteko. Bost egunetan egiten ahal da ibilaldia, estutasun handirik gabe, batez beste 22 kilometroko etapak

Erdi Aroan oso bide garrantzitsua izan zen Baztangoa. Santiagorako erromes askok hartzen zuten, batetik Otsondoko mendatea Ibañetakoa baino erosoagoa delako; bestetik, seguruagoa omen zelako

eginez. Osotara, 110 kilometro daude bi hiriburuen artean. Otsondo eta Belate dira aurkituko ditugun oztoporik handienak, baina horien zailtasuna nahiko txikia da, eta tru-

kean edertasun handiko bazterrak eskainiko dizkigute.

Baionatik, hiru bide

Baionako katedrala izaten ahal da ibilbidearen abiapuntua. Motibazio erlijiosorik izan gabe ere, txangoa egiteko erromesen kartila hartzea komeni da, horri esker bidean dauden erromesen aterpetxeetan lo egiteko aukera izanen dugu.

Errobi ibaiaren bazterrean dagoen bidetik aterako gara hiritik. Berehala hurrengo egunotan gidari izanen ditugun arrasto horiak hasiko gara ikusten. Ia ezinezkoa da galtzea, oso ongi markatuta dago bidea; diskretuagoa da Lapurdin, nabarmenagoa –hainbatetan nabarmenegia– Nafarroan. Baionatik ateratzean, Donejakue hiru bide ari gara konpartitzen (Orreagakoa, kostaldekoa eta Baztangoa) baina laster beste biak bereizi egingo dira.

Uztaritzetik igaro ondoren, Zuraideraino ailegatuko gara. Hantxe amaituko da lehen etapa, 24





Belateko basoa ageri da aurreko orrialdeko argazkian. Lerro hauen gainean, berriz, Ainhoara ailegatzen, Zuraidetik Amaiurrerako bidean. Eskuinean, Baztango bailara, Amaiur eta Berroeta arteko etapan.

kilometro lau eta atsegin egin ostean. Surrealista samarra da Zuraiden sartzea: golf zelaia ezker eta eskuin agertuko da, herriko kale bazterrak *green* erraldoi bihurtu dira. Zuraiden ez da erromesentzat propio prestatutako aterpetxerik, baina alde zurratik hartuta, erraza da lo egiteko toki topatzea.

Erosle konpultsiboen topalekua

Merezitako atsedendia hartu ondoren, bigarren egunerako bi aukera daude: etapa Urdazubin amaitu edo Amaiurreraino luzatzea. Bietan erromesentzako aterpetxea dago, hortaz lo egiteko arazorik ez. Kontua da Zuraidetik Urdazubira hamabi kilometro besterik ez direla, eta motz samar egiten ahal dela etapa. Horregatik, nahiago dugu Amaiurreraino iritsi. 22 kilometro dira, eta aprobeixatu behar da gorputza oraindik ez dela nekerik sumatzen hasi.

Zuraidetik Ainhoara eraman gaitu bideak, eta handik gutxira behialako “mugak” beste momentu surrealista samarra utzi digu: Dantxarinearako bentek, autoek eta erosle konpultsiboek ez dute zerikusirik ibiltariaren patxada eta eritmo pausatuekin.

Kontsumismoa atzean utzita, Urdazubin sartzeko bidea ezin ederagoa da. Herrian XII. mendean eraiki zen monasterioa da, bere garaian erromesen ospitalea izan zena, eta gaur egun aterpea. Herriatik atera eta Otsondoko maldak hasiko dira. Patxadaz igo behar da, baina aparteko zailtasunik gabekoa da Otsondo. Behin goian, paisaia paregabea: alde batera Lapurdiko kostaldea, bestera Baztango paraje berdeak. Amaiurreraino jaitsi behar da ondoren, gaztelu zaharreko oroitarrak ongietorria emanen dio ibiltariari.

Hirugarren etapak Amaiurretik Berroetaraino eramanen gaitu –Urdazubin gaua ematea erabaki badugu, berriz, bigarren etapa laburragoa da baina hirugarrena luzea-

**Baiona eta Iruñea
arteko bideak ederki
aski erakusten ditu
gure herriaren
izaera eta egoera
soziolinguistikoa**

goa–; hemeretzi kilometro dira Baztango parajeetatik: Azpilkueta, Arizkun, Elizondo, Irurita, Ziga eta, azkenik, Berroeta.

Tabernarik eta dendarik ez herrian, baina abisatuta ginen. Aterpe goxo eta berria, orde, bai. Herriatik pixka bat aldentuta, urruan errepidea ikusten da, autoak abiada handian pasatzen dira, horietan sartuta doazen horiei batere inbidiarik ez. Argigarria da oso, gauzak beste perspektiba batetik ikustea.

Euskararen geografia

Inguru euskaldun peto-petoan gaude, plazan jostetan ari diren haurrek argi erakusten duten moduan. Arratsaldeko ordu mortuak egiten ari garen bidaiaren alderdi kultural eta soziolinguistikoaz hausnartzeko parada dira. Izan ere, Baiona eta Iruñea arteko bideak ederki aski erakusten ditu gure herriaren izaera eta egoera soziolinguistikoa.

Ez da aditua izan behar ibili ahala gertatuko diren aldaketak antzemateko. Ibilaldiak gune oso populatuak guztiz erdaldunduak ditu muturretan, barnera joan ahala euskararen muina non den nabaritutako du



Eskuineko argazkian, Belateko kaskoa, pottoka eta guzti. Paraje honetan, bideak erromatar galtzada zaharra segitzen du. Oso ongi kontserbatu da galtzada hori, argazki honetan bereziki nabaritzen ez bada ere.

ibiltariak. Horrekin batera, hizkuntzaren aldaerekin ere gozatuko du bidean zehar.

Laugarren eguna fuerte hasiko da: Belate igo behar da, baina errepidetik urrun, basotik. Bideak dituen maldarik gogorrenak izanik, Belateko igoera tarterik politenentakoa da; zuhaitzen berdetasuna, basoaren isiltasuna eta, zorte apur batez, orkatzen bat edo beste animalien bat.

Hiriaren aztarnak ugarituz

Mendatea igotzearekin, atzean utziko dugu Baztango bailara eta Anuen sartuko. Lantzeko ostatu-

tan gosari-hamarretakoa eginda, aurrera segituko dugu, Olagueraino. Laugarren etapak dituen hemeretzi kilometroetan, gero eta ugariagoak dira errepide gaineko tarteak. Olagueko parrokia-etxean dago aterpetxea, eta harriduraz hartuko dituzte ibiltariak; Baionatik bainoago, beste planeta batetik etorri izan bailiran begiratuko dituzte.

Bosgarren eta azken egunak Nafarroako hiriburura hurbilduko gaitu. Olaguetik Sorarenera ailegatu eta bertan, Arga bazterretik doan bidea hartuko dugu. Erosoa, baina urbanoa.

Iruñerrira ailegatzearekin batera, akabo azken egunotako ibitze lasaia: Atarrabiako sarbidean Orreagatik datorren bidearekin eginen dugu bat. Erromes oldearekin bat eginik, Iruñean sartuko gara, herri txiki batean bizitzeak ematen dituen plazer handiekin kontent. ■



Bisitatu Ihesi.com, aisialdirako webgune partehartzailea.

San Juan 18
Albeniz-Asparrena (Araba)
www.inguruabentura.com
info@inguruabentura.com - Tel. 635 748 948

- Abentura kirolak
- Ezkonaurreko agurrak
- Familiarteko jarduerak
- Abentura bidaiak
- Material tekniko alokairuak
- Eta askoz gehiago...

Benito Lertxundi kantatuz

Noiz: Apirilaren 26an **Ordua:** 20:30. **Non:** Leidor antzokian, Tolosa.
Antolatzailea: KMK13 Tolosa. **Zuzendaria:** Migel Zeberio. **Orkestra:** Et Incarnatus. **Abesbatzak:** Tolosako Lask Abesbatza; Donibane Garazi, Baigorri eta Hendaia eskola publikoetako haur abesbatza; Gasteizko Crescendo Abesbatza; Zegamako Orkatx Txiki Haur Abesbatza.

Haurrak Lertxundi kantatuz, orkestraren babesaz

“Benito Lertxundi kantatuz” egitasmoaren kontzertu bereziena Tolosan eskainiko du Et Incarnatus orkestrak lau haur abesbatzarekin batera, datorren apirilaren 26an. Iparraldeko eta Hegoaldeko 200 haur baino gehiago arituko dira kantari, orkestraren babesaz, KMK 13 egitarauaren barruan.

FRANTSES HIZTUN ELEBAKARRAK euskararekin eta Hego Euskal Herriko haur euskaldunekin harremanetan jartzea da proiektu honen helburua. Ekimena Iparraldeko eskola publikoetako bi musika irakasleek sortu zuten: Baigorri eta Donibane Garazin ari den Denise Olhagaray dugu bat eta Hendaian ari den Jose Antonio San Miguel bestea. Musika ikasgaiaren barruan,

ikasleek kontzertu bat eskaintzen dute urtero, normalean modako abestiekin, baina azken urteotan Olhagaray eta San Miguelek euskal musikan oinarritu dituzte kontzertu horiek.

Besteak beste, Mikel Laboa eta Itoiz izan zituzten gogoan. Aurtengoan Benito Lertxundiren abestiak lantzea pentsatu zuten eta Migel Zeberio Et Incarnatus

zuzendariarekin jarri ziren harremanetan. “Interesgarria iruditu zitzaigun –azaldu digu Zeberio– eta hiru urte daromatzen honetan murgilduta, oso gustura”. Iazko udaberrian egin zituzten lehen emanaldiak, Hendaian eta Baigorri. Geroztik, proiektua aurrera eramanez ahal izateko Euskadi-Akitaniako partzuergoaren diru-laguntza eskuratu zuten. Horri esker,



Et Incarnatus orkestra, Lask abesbatza, Eñaut Elorrieta eta Amaren Alabak, Tolosako Leidorren.



Et Incarnatus eta zenbait abesbatza, Erkki Pohjola musikari finlandiarraren omenaldian.

hain zuzen, emanaldi gehiago eskaintzeko aukera zabaldu zaie: Tolosan apirilaren 26an, Zegaman apirilaren 27an, Agurainen maiatzaren 25ean eta Gasteizen maiatzaren 26an.

Zeberioak dioskunez, “Tolosako kontzertua izango da guztietan bereziena, Iparraldeko haur kantariekin batera Hegoaldeko beste hiru haur abesbatza ariko direlako. Emanaldiak egingo diren herrietako haur abesbatza guztiak gonbidatu nahi izan ditugu Tolosako saiora, elkarrekin aritzeko, elkar ezagutzeko. Besteetan herriko taldea bakarrik ariko da gurekin eta Iparraldeko haurrekin”.

Donibane Garaziko La Citadelle, Baigorriko Jean Pujó, Hendaiaiko Irandatz, Zegamako Orkatz txiki, Gasteizko Crescendo eta Tolosako Laskorain ikastolako Lask abesbatzak izango dira partaideak.

Tolosan izango da aurten Kilo-metroak festa eta “Ahora!” leloa aukeratu du Laskorain Ikastolak. “Gure helburua euskararen erabilera bultzatzea da eta emanaldi hau helburu horrekin ondo lotzen zela ikusten genuelako erabaki genuen gure egitarauan sartzea. Iparraldeko eskola publikoetan euskaraz hitzik ere ez dute egiten eta proiektu honi esker haur horiek euskara hurbilago sentituko dute. Gainera zenbait herrialdetako partaideak ere izango

dira Tolosako emanaldian. Gure festaren oihartzuna leku guztietara zabaltzea nahiko genuke”, adierazi du Unai Igartua KMK 13ko koordinatzaileak.

Lertxundiren hamaika kanta

Erreperitorioa, Benito Lertxundiren kanta ezagunenetakoen moldaketek osatuko dute, hamaika guztira, belaunaldi ezberdinentzako kanta kuttun horietakoak, kanta herrikoiak eta jada euskal kultur ondarearen zati direnak. Horregatik aukeratu dituzte horiek, Hendaiaiko, Baigorriko eta Donibane Garaziko haurrek kanta ditzaten. Moldaketa berriak Jose Antonio San Miguelek egin zituen, harizko orkestrarako eta haur korurako bereziki. “Ipar Euskal Herrian, batez ere barrualdean, Behe Nafarroan eta baserri giroan, kantatzeko ohitura ez dute galdu eta hori oso nabari zaie haurrei. Kanturako berezko dohaia dute. Nahiz eta musika formazio berezirik ez izan, eskola arruntekoa besterik, musika eskolan edo abesbatzan ikasi ez duten horiek ikusle goa harrিতuta utziko dute. Bakarlarrien ahotsek txunditu egingo dituzte”, azaldu du orkestra zuzendariak.

Hegoaldeko haurrek ere orkestra profesional batekin kantatzeko aukera izango dute, oso okasio gutxitan bezala. Zeberioak nabar-

mentu nahi izan duenez, “Euskadi-Akitania partzuergoaren laguntzari esker izan da posible”. KMK 13ren ikastola antolatzaileko abesbatza, Lask, bertan izango da. “Guretzat ez da berria orkestra honekin aritzea. Zuzendaria tolosarra da eta elkarlanean aritu izan gara bi alditan: Erkki Pohjola musikari finlandiarraren omenaldian eta Eñaut Elorrieta, Amaren Alabak eta Baigorriko gaitariekin egin genuen saio berezian. Luxua da, eta haurrentzat oso motibagarria, horrelako orkestra batekin kantatu ahal izatea”, azaldu digu Naiara Mintegia Lask abesbatzako zuzendariak.

Iñaki Epelde gogoan

Duela gutxi Iñaki Epelde margolaria hil zen, Et Incarnatus orkestraren kolaboratzaile finenetakoa. Zuzendariak ez du aipatu gabe utzi nahi hil ondorengo lehen emanaldi honetan: “Gure orkestrak, bakarra eta erabat independentea izateaz gain, talde zabala hartzen du bere barruan. Musikariak noski, baina baita, idazle, konpotzaile, laguntzaile eta bultzatzaile zenbait ere. Iñaki Epelde elementu berezietarikoa izan dugu: gure itxura, irudia eta logoaren sortzaile izateaz gain, proiektu garrantzitsu guztietako oinarritzeko ideia eta filosofia finkatzen lagundu zuen. Gure proiektuen singularitate eta emaitzak beti izan duen arrakastaren zati bat hari zor diogu”.

Iparraldeko bi emanaldiek erantzun oso ona jaso zuten, Hendaiaiko frontoia eta Baigorriko eliza jendez bete ziren, eta ondorengo emanaldietan ere berdin izatea espero dute antolatzaileek. Guztira 250 artista elkartuko dira Leidorreko taularen gainean, besteak beste musikariak eta abeslariak. Aurretik hainbat entsegu eta lan egindakoak dira. Gauzak behar diren bezala ateratzeko jende askoren laguntza eta babesa izango dute. Guztien asmoa Benito Lertxundiren kanta ezagunenak duin eskaintzea da, abesbatzen eta orkestraren eskutik, biltzen direnen gozagarri. Entzuleen esku dago orain erantzuna. ■

Joxemi Saizar



Datozen hamarkadetako apustua: itsasoa energi iturri



Lau hamarkadatan 330.000 turbina paratuko dira itsasoan, aurreikusi denez.

ITSASOTIK ENERGIA LORTZEA oso nekeza da izan da orain arte, batez ere itsas hondoan lan egitea ez delako erraza; han jarritako gailuak azkar herdoiltzen dira.

Oraingoan, itsasoetako korranteak edo mareen mugimenduak baliatzen dituzten bi zentral daude munduan. Bata Frantziako La Rancen dago eta 240 megawatteko potentzia du; besteak, Hego Koreako Sihwa lakuaren ondoan dagoenak, 254 megawattekoa. Zentral horietan, diametro handi samarra duten gurpil batzuen bidez lortzen da energia. Itsasoko ur korranteek

gurpilak higitzen dituzte, eta higidura horrek elektrizitatea sortzen du.

Aurten beste bultzadaxo bat emango zaio sistemari: Britainiako Ouesant irlan hamar metroko diametroa duen turbina itsasoratuko dute 55 metroko sakoneran. Haren bitartez, megawatt bateko potentzia lortuko da. Bi urte barru beste lau turbina itsasoratuko dituzte leku berean; era horretan uharteko behar energetikoen %70 asetzea espero dute.

2050. urterako sistema hori mundu osora hedatzea aurreikusi da. Itsas azpian 330.000 turbina inguru jarriko direla estimatu da, 334.000 megawatteko potentzia sorraraziko dutenak. Hau da, mundu osoko energia beharren %20. ■



Entzumen arazoak gainditzeko, Google-en betaurrekoak

GOOGLE GLASS, Google enpresaren proiektu teknologikoetako bat da. Betaurreko eran erabiliko da eta bideoak ikusteko eta transmititzeko ez ezik, musika entzuteko ere balio izango du.

Esandakoa jakina da orain hilabete batzuetatik, baina berrikuntza bat iragarri dute musika entzuteko eran: antza, soinua ez da airetik belarrira ailegatuko, hezur bidezko transmisioz baizik. Hala, entzumen arazoak dituzten askok eta askok musika era naturalen entzuteko aukera izango dute. ■



WWW.TWYLAH.COM



Gizakiaren jatorriaren bila, beste urrats bat

Australopithecus sediba espeziearen aztarnek tximinoen zein gizakien ezaugarriak azaltzen dituzte. Gure jatorrien bila ari direnentzat oso informazio baliagarria eskaintzen dute Hegoafrikan berriki aurkitutako hezurrek.

ttiki.com/49557
(Euskaraz)

Eguzki-jarduerak aurora boreal ikusgarriak sortzen ditu

Behin baino gehiagotan adierazi digute eguzkiaren jardura hazi egin dela eta ondorioz sortzen diren izpi eta uhinek gure komunikazio sistemiei eragiten dietela, besteak beste. Baina zeruan irudi ikusgarriak ere uzten dizkigute eguzkiko leherketek. Hona hemen Norvegiar hartutako irudiak.

ttiki.com/49558
(Gaztelaniaz)

Antartikako izotza, uste baino azkarrago urtzen

364 metroko sakoneran hartutako laginei esker jakin denez, Antartikako izotzaren udako urtze-abiadura orain 600 urtekoa baino hamar aldiz azkarragoa da gaur egun. Itsasoko izotz galera azken 50 urteetako azkarraren izaten ari da, nazioarteko ikertzaile talde batek adierazi duenez.

ttiki.com/49559
(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Hausnarra galdu gabe

LAU LANDARE behar ditut euskaldunok gurgai genituzkeen hamahiruen zerrenda osatzeko. Batzuek irauten lagundu digute: jaki, materialetarako... Eta beste batzuek bizitzen: espiritualitatea osatzen... Denetik behar izan dugu. Baita gorputza osatzeko ere. Facebookekoaz gain ere laguna dudan Edortak berbena (*Verbena officinalis*) proposatzen dit sendabelarren ordezkari. Enborra laukia duen belar zoragarri horren zale amorratua banaiz ere, sendabelarren artean badituzte kuttunagoak, adiskidea.

Pasmobelarra bat, *Anagallis arvensis*. Inguruan harrapatzen dudan guztia bildu, lehortu eta jasotzen dut, urtea joan eta urtea etorri; eta urtero bukatzen zait pila, eske izugarria du. Gure inguruan sendabelar miretsiena da. Bere izena esateak soilik sendatuko zaituela dirudien horietakoa da. Sorginkeria. Eta halaxe da: infekzioa baduzu, hiru egunez baraurik bere ura hartu. Laster igarriko dituzu zorneak eta pasmoak ihesi.

Malba, *Malva sylvestris*, ere kuttunen artean dut. Gure amonak atari aldamentean bazuen beti bateren bat, sendabelar. Jaki goxo ere bada, hosto berriak entsaladatarako eta loreak nolana. Hausnarra galdu duen aziendak, beharrezkoa duen jatenaren atzera-aurrerako hori berreskuratu dezan malba ematen



TEUN SPAANS-CC BY 2.5

Pasmobelarraren (*Anagallis arvensis*) lorea.

zaio. Landare honen eta gure kulturaren arteko antzeko makina bat traturen lekuko, kolonizatzailearen latinezkoaz gain ditugun izenak dira: ziga, zigí, ziguin...

Arto guztien ordezkari bat ere aukeratu behar eta neuretzat garia, *Triticum spp.* Artoa hitza grekoa da, eta oinarritzko ogi edo jaki esan nahi du. Euskaldunok oinarritzko jaki ugari izan dugu (hur, ezkur, gurbe, sagarmin...) baina irindu eta orantzaz hartzitu ondoren ogi bihurtu ditugun artean garia izango da seinatuena. Artatxikia, *Panicum miliaceum*, eta artoa, *Zea mays*, mitikoen baime-narekin, edo gabe.

Eta euskaldunok Asiako kultura aurreratuekin dugun zorra azalduko duen landareren bat jarri gabe ezin bukatuko dut, ezta? Gure baratze, soro, ganbara zabal eta sabel bete dituzten landare gehienak eta horiek lantzeko erak haiengandik jasoak ditugu. Eta bakarra aukeratze aldera baratxuria, *Allium sativum*; edo hobe esanda baratxuritarrak, *Allium spp.* Gure amonaren baratxuri-zopa zailetik, Mugaritzeko edozein jaki sinpleenera; edo neronen sagardoizko legatza sonatuaren saltsa loditzaile. Baratxuria, jauretsia. ■



Landare Berezien 11. Azoka

Iturrarango Lorategi Botanikoa

AIA (GIPIZKOA) APIRILAREN 27a eta 28a

Ordutegia: goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara

Sarrera: 4 € (12 urtetik beherakoek doan)

DOAKO AUTOBUS zerbitzua egongo da Zarauzko

Euskotren geltokitik eta Lorategi Botanikoaren

inguruan moldatutako aparkalekuetatik

www.iturraran.org www.aiapagoeta.com www.gipuzkoamendizmendi.net

TEL: 943 835 389 iturraran@gipuzkoamendizmendi.net



Fatiok bereizi zuena ez dezala politikak ezabatu

BASILEA (SUITZA), 1689. Johannes Fatio (1649-1891) kirurgialari eta obstetrikalaria Elisabet eta Catherina ahizpa siamdar jaioberriak bereizten saiatu zen, eta lehenengoz kirurgia arriskutsuak arrakasta izan zuen.

200.000 jaiotzatik batean anai-arreba bikiak gorputzeko hainbat ataletatik batuta jaiotzen dira. XXI. mendeko teknologiarekin ere, maiz arrisku handiko ebakuntza eskatzen du biki siamdarrak bereizteak. Fatiok XVII. mendean lortu zuen balentria, eta doktore suitzarrari meriturik kendu nahi ez arren, zortea ere lagun izan zuen.

Elisabet eta Catherina biki siamdar xifopagoak ziren. Mota horretako siamdarrak ehun bigunetik soilik batuta egon ohi dira eta ez dute ezinbesteko organorik partekatzen; hala, ebakuntzaren ondoren bizirik irauteko aukera askoz handiagoa dute. Elisabetek eta Catherinak organo garrantzitsu bat partekatzen zuten, baina, zorionez, erabat berrosatzeko gaitasuna duen giza gorputzeko organo bakarra zen: gibela.

Fatiok berak ez zuen esperantza handirik izango, ebakuntza hasi baino lehen ahizpa itsatsiak bataiatzeko agindua eman baitzuen, zer gerta ere. Itxura guztien kontra, bikiak onik atera ziren eta aurrerantzean bizimodu normala egin ahal izan zuten. Fatiok, aldiz, ez zuen halako aukerarik luzaroan izan.

Johannes Fatio Basilean bertan jaio zen. Ikasketak jaioterrian hasi zituen, baina Valenceko Unibertsitatean (Frantzia) lortu zuen doktoregoa. Siamdarren bereizketa bikainaz gain, lan handia egin zuen haur kirurgian; umeen baldintza kirurgikoak sistematikoki aztertzen eta tratatzen lehena izan zen. Hainbat liburutan bildu zuen egindako lana, baina, arrazoi politikoak medio, ez zuen sekula jaso merezitako oihartzuna eta aitortpena.

Basileako udal gobernua kontseilu berezi baten eskuetan zegoen garai



Fortunio Liceti italiarraren *De monstis* (1665) liburuko ilustrazioa. Garai bertsuan, Licetik "munstroak" deskribatu zituen eta Fatiok siamdarrak bereizteko ahalegina egin zuen.

hartan. Pixkanaka kontseiluan bankariak eta goi mailako merkatariak sartzen joan ziren eta, azkenean, boterea gutxiengo aberatsenaren esku geratu zen. 1691n herritarrak boterea berreskuratzeko matxinatu ziren, baita lortu ere. Baina, berehala, kontseilu ohiak kontra-errebolta antolatu zuen, eta ordena zaharra berrezarri.

Matxinadaren buruzagietako bat izanik, Johannes Fatio atxilotu, torturatu eta 1691ko irailaren 28an hil zuten. Pediatra aitzindariak idatzitako liburuak konfiskatu eta erre zituzten. Eskuizkribu bakarra salbatu zen, hil baino urtebete lehenago idatzitako *Helvetisch-Vernünftige Webe-Mutter* izeneko emagintzari buruzko tratatua. Gainera, obra hori ez zuten egilea hil eta handik 70 urtera arte inprentara eraman. Haren obra bakarra argitaratu bitartean, Elisabet, Catherina eta beste hainbat haurren osasuna izan zen Johannes Fatioren lanaren ordain isila. ■




Arrastoak

“Iparraldeko Ponpeia” industen ari dira

ANTZINAKO LONDINIUM erro-matar hiriaren arrastoak industen ari da Londresko Museoko arkeologo talde bat Ingalaterrako hiriburuaren bihotzean. Aztarnategia gaur egun desagertuta dagoen Walbrook ibaiaren ibilguan dago, Londresko finantza gunean. Erromatarrek Britainiar Uharteak okupatu zituzten garai osoko aztarnak topatu dituzte, hau da, K.o. 40. urtetik hasi eta V. mendera artekoak.

Gurean Oiasoko aztarnategian gertatu bezala, Londresko zoru hezeak zenbait objektu berehala hondatzea ekarri zuen, baina beste batzuk ohiko aztarnategi “idorretan” baino hobeto gorde dira: egurrezko egiturak, larruzko objektuak... Aurkitutako arrastoek Londinium erromatarraren giro bizia islatzen dute eta, hala, bada dagoeneko Londresko aztarnategia “iparraldeko Ponpeia” izenez bataiatu duenik. ■



NATIONAL GEOGRAPHIC

Aldaketa haizea erresuma zaharreko jauregietan

Nafarroako Legebiltzarrak bere lehen zentsura mozioa bizi berri du. Eta Sanz, Miranda eta Mayak lehen aldiz deklaratu dute epailearen aurrean Nafarroako Kutzako dieten harira. Barcina lehendakaria falta da. Eta auzitegietan gertatuko dena klabea da Nafarroako etorkizun hurbilerako. Oposizioak oraindik badu aukerarik Barcina kanporatzeko.

| XABIER LETONA |



JACOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

NAFARROAN sarri aipatzen da abertzaletasuna soziologikoki populazioaren herena dela gutxi gora behera, baina instituzioetako ordezkartzan urruti izan da kopuru horietara gerturatzetik ere. NaBai izan zen indar abertzale batek Nafarroako Legebiltzarrean lortu duen emaitza onena, 2007an 12 parlamentario. Baina abertzaleek 2011n lortu zituzten emaitza onenak: NaBaik 8 eserleku eta Bilduk 7.

Orain arte ordea, nekez irudika zitekeen abertzaleek zentsura mozio bat bideratzeko moduan, are

gutxiago horren buruan ezker abertzalea egotea. Egoera politikoa aldatzen ari da Nafarroan, denbora gehiago beharko da joerek hori baieztatu dezaten, baina krisi garai honek ere eskaintzen ditu aldaketaren hainbat zertzelada. Azken greba orokorretako herritarren mobilizazio maila dago adierazle horien artean, edo azken bi hilabeteetan izandako mobilizazio handiak, azkena apirilaren 6an, Yolanda Barcina lehendakariaren dimisioa eskatzeko 10.000 bat lagun bildu zuena. UPN azken bi hamarkadetako

beren garairik makalenean dago, CDNren eszizioaren garaira gerturaturaz (1995), baina krisiaren ondorioz, orduan baino egoera estuagotan. Denbora honetan, halaber, PSN giltzarri izan da UPNk boterean jarraitzeko, bereziki azken legealdian. Koalizioa gobernua osatu zuen nabarristekin, baina esperimenduak urtebete iraun zuen, 2012ko ekainera arte, Yolanda Barcinak Roberto Jimenez Gobernuko lehendakariorde postutik kendu arte.

Hilaren 18ko zentsura mozioaren lehen bor-borak orduan hasi

J. MANTEROLA / ARGAZKI PRESS



J. MANTEROLA / ARGAZKI PRESS



I. ZABALETA / ARGAZKI PRESS

Sanz lehendakari ohiak apirilaren 12an deklaratu zuen, Mayak eta Mirandak 14an eta 15ean. Errurik egotekotan Nafarroako Kutxako idazkariaren gain uzten dituzte.

ziren. Berriz ere –azken aukera 2007an izan zen, PSN, NaBai eta NEBen eskutik– UPN oposizioa bidaltzeko aukera teorikoa zegoen. Oposizioak ia urtebete behar izan du zentsura moziara iristeko, eta gainera, bazekien ez zela aterako, 26 parlamentario behar eta 18 bestetik ez zituen eskuratu: Bilduko 7, NaBaiko 6, Ezkerrako 3 eta Geroa Baiko 2 –2012 urrian banandu ziren NaBaitik Legebiltzarrean–.

Zentsura mozioa sostengatu dutenentzat UPNren aurkako beste tresna bat izan da hau eta, funtsean, Barcina baino PSN jarri du ataka estuan. Orain galdera nagusia da ea Barcina 2015eko udaberrira arte gobernuari eusteko gai izango den edo hauteskundeak aurreratu beharko dituen. Kontua da, oposizioaz gain, bere alderdiaren erdia ere aurka duela. Alberto Catalanek –eta itzaletik Miguel Sanzek– gidatuta, sektore honek uste zuen martxoan UPNren kongresuan Barcina gainetik kenduko zuela, baina kontrakoa gertatu zen, honek ozta-ozta irabazi eta alderdiko eta Gobernuko lehendakariarekin jarraitzen du.

Barcina alboratu eta berriz PSN-rekin akordio maila bat lortzea zen UPNko aparatuen jokaldia. Gaizki atera zaie eta, bidenabar, PSNri ere egoera biziki korapilatu zaio, nafar gizartean sumatzen den aldaketa gogoaz zapuztu duelako. Roberto Jimenez egoera larrian dago, egungo bidetik UPNren makulu izatera kondenatua, eta epe motz-ertainera badirudi bereak egin duela idazkari nagusi moduan. Ezkutuan aritzeko inongo ahaleginik egin gabe, PSN-n aginte makila nork duen argi utzi zuen Alfredo Perez Rubalcaba PSOEko idazkari nagusiak martxoaren 5ean Iruñera

egindako bisitan: PSNren lehentasuna UPNrekiko akordioa da. Baina bide horrek gainbehera besterik ez dio ekarri gaur arte: 1991n Gabriel Urralbururekin 20 parlamentario eskuratu zituen eta egun 9 ditu.

UPN eta Nafarroako Kutxa

Nafarroako gizartean oso modu mingarrian sumatzen da Nafarroako Kutxaren (CAN) galera. Gutxiengoarentzat, finantza sistemaren krisiaren ondorio izan da,

2009aren bukaeran Nafarroako Kutxaren balioa 1.295 milioi eurokoa zen eta 2012ko bukaeran, 250 milioi

baina gehiengoaren ustez, UPNren kudeaketa txarra erabakigarria izan da CANek Caixabanken eskuetan bukatzeko: 2009aren bukaeran bere ondare balioa 1.295 milioi eurokoa zen eta 2012ko bukaeran, Caixabanket bereganatu zuenean, 250 milioi. Hiru urtetan 1000 milioi euroko balio galera izan zuen CANek. Tartean Banca Cívica abentura dago: zergatik Caja Canarias, Caja de Burgos eta Cajasolekin bai eta ez bere historian txertatuak diren beste eskual aurrezki kutxeekin?

Hego Euskal Herria edozein modutan banatuta izatea giltzarri da

Estatuarentzat, baina emaitza larria da: Nafarroako Kutxa desagertu da edo, bestela esanda, Caixabanken %1 da eta honen finantza marka Nafarroan.

Auzitegiatan

CANeko galera sentimendua, alabaina, ez da haren bezeroen edo herritarren uste hutsala. UPyDk salaketa jarri zuen Banca Cívica burtsaratzea ikertzeko eta gaia gaur egun Espainiako Auzitegi Nazionalako Eloy Velasko epailearen esku dago.

Baina CANeko kudeaketa txarra eta ustezko ustelkerien benetako ikerketa lana Kontuz! kontsumitzailer elkarteak egin du, orain arte UPN eta CANeko agintarien benetako buruhauste bihurtzeraino. 2012ko urrian, adibidez, Jesus Pegenaute Nafarroako Gobernuko Politika Sozialen sailburuaren dimisioa behartu zuen, 2007an CANeko zuzendariordea zenean, honek 180.000 euroko diru zuriketa egin zuela salatu ondoren.

UPN berehala saiatu zen abertzaleen ohiko erasoarekin lotzen, baina Iruñeko Auzitegiko Instrukzioko 3. Epaitegiko epaileak aintzat hartu



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Herritarren protesta bilkurak UPNko agintariak Iruñeko Auzitegira deklaratzera hurbildu direnean.

ditu Kontuzen hainbat salaketa eta ikertzen ari da ea Nafarroako Gobernuko agintariak zein jokaera izan duten CANeko kudeaketan.

Bata bestearen atzean etorri dira CANekin lotutako eskandaluak. Entzutetsuenetakoa Santiago Cervera PPko diputatuaren auzia izan da, iragan abenduan Iruñeko harresietara kuxari buruzko informazioa ei zuen ezkutuko gutun-azal bat jasotzera joan zenean Guardia Zibilak atxilotua. Honek hedatu zituen CANeko eskandaluak Espainiara, ordurarteko albisteekin estatuko hedabideek ez baitzuten ia interesik agertu.

Azaleratutako aferak asko dira: Washingtoneraino iritsita-ko bulegoen zabalkundea, bezero bereziendako helikoptero bidaiak Parisera, altzari oso garestien erosketak, opari oso garestiak, agintariei CANeko negozioetan parte hartzeko aukera berezia –Navarra Building eta Barcina adibidez–, pertsona zehatzei emandako mailegu merkegoak...

Prebarikazioa eta sobornoa

Kontuzeko salaketan harira, Maria Paz Benito epaileak, dagoeneko UPNko goi mailako hiru agintari edo agintari ohi inputatu ditu prebarikazioa eta soborno delituak egon daitezkeelakoan: Miguel Sanz lehendakari ohia, Alvaro Miranda sailburu ohia eta Enrique Maya Iruñeko alkatea.

Hiru hauek eta beste hainbat agintaririk partehartzen zuten CANeko Erakundearen Sortzaileen Batzordean, kuxaren estatutuetan instituzioek honen kontrolerako aurreikusitako batzordean. Horko lau kidek –Barcina, Sanz, Miranda eta Maia– halaber, organu honen batzorde iraunkor batean partehartzen zuten, horregatik dieta gisa dirutzak jasoz: Sanzek 39.028 euro, Barcinak 31.324 euro, Mirandak 27.472 euro eta Mayak 6.868 euro. Barcina lehendakaria da oraindik inputatu gabekoa, baina arrazoiak bes-

teen berdinak dira. Epaileak, hala ere, zuhurtziaz jokatu du eta datu gehiago bildu arte ez du Barcina inputatu, bere izaera medio, Barcina aforatua delako eta, ondorioz, bere kasua Espainiako Auzitegi Gorenera iragan-go litzatekeelako.

2010ean eta 2011n egindako bilera horietan ez zegoen gai-ordenik eta ez zuten inolako paperik eramaten etxera, entzun eta listo. Eta sarri, bilera bat egin, bi gisa agertu eta bi dieta patrikaratu.

Batzorde iraunkor honen lehen bilera 2010eko abuztuan egin zen, baina ofizialki bere sorrera 2011ko uztailera da. Data horretatik aurrera, beraz, jadanik lehendakaria ez zenean, Sanz noren izenean zegoen bilera horietan? Sortzaileen Batzordekoko gainerako agin-

Zentsura mozioa UPNren aurkako beste tresna bat izan da eta, funtsean, Barcina baino PSN jarri du ataka estuan

tariet ba al zuten batzorde iraunkor honen berririk? Zergatik Nafarroako Gobernuak ez zuen ikuskatzen CAN zeregin horretarako eskumenak bereak direnean? Zergatik bilera bat egin eta bi gisa kobratu? Zergatik dirutza horiek? Galderak eta kontraesanak saldoka datoz.

Eta epailearen susmoa da kutxa ez ikuskatzearen truke, inputatuei dietak eskaintzen zizkiela eta, hortaz, hauek prebarikazioa eta soborno delituetan erori zirela. Jadanik hartu die deklarazioa hirurei eta orain ikusi beharko da epailearen hurrengo urratsa zein den. Ikusi beharko den moduan Barcina inputatuko duten ala ez eta honek hauteskunde aurrerapenean nola eragiten duen ■





AQUARIUM



Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa)

Tel: 943 44 00 99

aquariumss@aquariumss.com

www.aquariumss.com



Erleak eta intsektizidak: lobbygintza ikastaro praktikoa

Erleei kalte larria eragiten dietela-eta, hainbat intsektizida neonikotinoideren erabilerari muga zorrotza jartzeko proposatu die Europar Batzordeak bere estatu kideei, oraingoz arrakastarik gabe. Bitartean, substantzion egile diren multinazionalak nekazain aritu dira azken urtean, beren produktuak debekatuak ez izateko borrokan.

| UNAI BREA |



NEONIKOTINOIDEAK 1990eko hamarkadatik izugarri zabaldu den intsektizida multzo bat dira, baina iritzi publikoak oraintsu izan du haien berri. Joan den urtarrilean argitara emandako txosten batean, Elikagaien Seguratasuneko Europar Agintaritzak (EFSA) adierazi zuen neonikotinoideen erabileraren eta erleen desagertzearen arteko lotura estua zegoela. Horren ondorioz, Europar Batzordeak substantzia horietako hiruren (imidacloprid, tiametoxam, klotianidina) erabilera zeharo mugatzeko proposamena egin zuen. Gogoan hartu behar da erleen kopuruaren beherakada ingurumen arazo larria dela, oso funtzio garrantzitsua betetzen baitute landareen ugalketan. Bidenabar esateko, hainbat estatuk aspaldi erabaki zuten, beren kasa, neonikotinoideen erabilera zeharo murriztea.

Martxoaren 14 eta 15ean bildu zen Elikadura Katearen eta Animalia Osasunaren Batzorde Iraunkorra, Europar Batzordearen proposamena eztabaidatzeko. Europar Batasuna osatzen duten 27 estatuetako adituek bozkatu zuten. Proposamenaren aldeko botoak aurkakoak

baino gehiago izan ziren, baina gehiengoa ez zen nahikoa erabakia loteslea izateko. Hortaz, datozen asteetan proposamena berriaz bozkatu da Apelazio Batzordean.

Industriaren kanpaina

Europar Batzordeak 2012ko apirilean eskatu zion EFSARI aipaturako intsektizidek erle populazioetan duten eragina aztertzeke, *Science* aldizkariak argitaratutako ikerlan biren karietara.

Ikerketa horietako baten arabera, tiametoxam dosi txikiakin kontakua izandako erle langileek hilkortasun tasa handiak agertzen zituzten. Beste ikerlanak zioen imidaclopridak –kantitate txikietan halaber– kalte larria egiten diela erlastarrei, haien ugalketa-gaitasuna gutxituz eta erregina asko hiltzea eraginez.

Ia berehala, eta artean EFSAk bere txostena amaitzeko urte erdi inguru falta zela, pestizida neonikotinoide horiek ekoizten dituzten enpresak, Bayer (imidacloprid, klotianidina) eta Syngenta (tiametoxam), indar biziz hasi ziren beren produktuen aldeko kanpaina egiten, ECPAren laguntzarekin. Pestizida

ekoizleen europar lobbya da ECPA.

Lobbyen jarduna hurbiletik jarraitzen –eta, maiz, salatzen– duen CEO elkarteak kanpaina horren historia laburbildu du bere webgunean, besteak beste aipatu enpresetako ordezkariak Europar Batzordeko kargudunei bidalitako gutunen edukia erakutsiz. Ondoren datorrena historia horren sintesi bat da.

Komisarioak bi letter jaso zituen oso denbora gutxian

Ekainean, Bayerrek eskutitza igorri zion John Dalli, EBko Osasun eta Kontsumitzaile Politikako komisarioari. Alemaniako multinazionalak zioen ez zegoela ziurtasun zientifikorik erleen desagertzeak neonikotinoideekin zerikusi zuzena duela esateko. Bayerren hitzetan, erle intoxikazio masiboek –iraganean gertatuak, betiere– arrazoi bat baino gehiago dute, horien artean nekazariak egindako erabilpen okerra.

Bayer baino lau egun lehenago, ekainaren 8an, Syngenta izan zen Dalli komisarioari bere ikuspuntua helarazi ziona. Michael Mack operazio zuzendariak sinatu zuen esku-

titza, eta ez zuen aukera galdu Dalliri gogorarazteko “kasualitatez”, aste bi lehenago, Barack Obamarekin, François Hollanderekin eta botere handiko beste zenbait agintarirekin bilduta egon zela, eta bilera hartan, besteak beste, Syngentak elikadura-segurtasunaren alorrean eta partikulariki Afrikan, gastatuko zuen dirutzaz hitz egin zutela. Nolanahi, gutunaren helburu nagusia *Science*-n argitaratuko ikerlanen balioa gutxiestea zen.

... baita hirugarren bat ere

ECPAk ere posta aukeratu zuen Dallirekin harremanean jartzeko. Ekainaren 13ko data dauka aste berean komisarioak gai berarengatik jasotako hirugarren gutunak. Funtsen, pestiziden patronalak Dalliri gogorazi nahi zion –eta egia zioen– ezin zaiola faktore bakarrari egotzi erleen populazioaren murrizketa. Espero zitekeenez, ECPAk aipatutako mehatxu zerrenda oparotik kanpo geratu zen susmagarri bakarra neونيكوتينوидеak ziren.

Bide batez esan dezagun handik gutxira, iazko urrian, John Dallik dimitutu egin zuela, ustelkeria politikoagatik salatua izan eta gero. Eskandaluan Suediako tabako konpainia bat ibili zen nahastuta.

Neonikotinoiderik gabe, milaka milioi euroko galerak

Hurrengo pasartea, CEOk argitaratu emandako kronologiari segika, azaroan etorri zen. Ordurako Dallik ez zegoen karguan, baina bai beste batzuk. Hala, Syngentak neونيكوتينوидеen aferak berraztertzeke eskaria egin zien, eskutitz bidez nola ez,



Hainbat ikerlanetan oinarrituta, EFSAk ebatzi du neونيكوتينوидеen erabilera faktore nagusietakoa dela erleen populazioen desagertzearen.

Nekazaritza eta Ikerketa komisarioei, hala nola EBko nekazaritza ministro gutxiei. Gutunean, Syngentak zioen “Tiametoxam bezalako hazientzako tratamenduei trabak jartzen bazaizkie, laborariak ingurumena rentzat kaltegarriagoak diren intsektizidak erabiltzen” hasiko zirela, eta horrek 17.000 milioi euroko galerak eragingo zituela bost urteko epean. Baieztape hori ikerketa independente batean oinarrituta zegoela zioen Syngentak, baina ez zuen xehetasunik ematen ikerketa horretaz.

Zientzialarien ostean, abokatuak

Bien bitartean, bai multinazional biek bai ECPAk neونيكوتينوидеen arriskuak agerian uzten dituzten lan zientifikoak gutxietsi eta haien onurak nabarmentzen dituztenak mahai gainean jartzen zebiltzan. Hala eta guztiz ere, aurtengo urtarrilean

EFSAk emandako txostena industriaren interesen aurkakoa suertatu zen erabat, dagoeneko esan dugunez. Syngentak, orduan, epaitegitara jotzeko mehatxua erabili zuen kontraerasorako arma modura.

Suitzako konpainiak, argitaratu aurretik eskuratu zuen EFSaren prentsa oharra –gutun datengatik ondorioztatu daiteke hala izan zela–, eta Agintaritzari jakinarazi zion ez zuela baztertzeko bere kontrako salaketa jartzea, oharraren edukia aldatu ezean. EFSAk ez zuen koma bakar bat ere aldatu ordea, eta CEOren esanetan, harrezkeroztik Bayer eta Syngenta EBko politikariei ari zaizkie presio egiten. Momentuz, lehen borrokaldiaren emaitza aldekoa izan dute. Ea zer dakarren bigarren bozketak. ■







**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Langileek kontatu dute Pasaiako fundizioaren historia

Inoiz eroriko ez zen erraldoia, burdinaz egina, burdina egiteko. Gero etorri ziren “errekobertsioa” eta antzeko hitzak. Gero joan ziren milaka lagun kalera. Pasaiako Luzuriaga fabrikako langileak elkarizketatu ditu Koldo Izagirrek *Voz y vida obrera: Luzuriaga, hogeita bost lekukotasun* liburuan. Oroitzapenetik harago, hemen eta orain balio dezaketen esperientzien bilduma da.

| GORKA BEREZIARTUA |

“MASA HARK burua eta bihotza zeuzkan, kontsignak bere egin eta mugimenduak hasten zituen”. Roberto Lopez de Etxezarreta nostalgia puntu batekin akordatzen da Pasaiako Luzuriagan lan egiten zuen jendeaz. Fresatzaile aritu zen, sindikalista ere bai; Pasaiako fabrikari lan egin zuten beharginen testigantzak jasotzen dituen *Voz y vida obrera: Luzuriaga, hogeita bost lekukotasun* liburuko protagonistetako bat da.

Beste 24 lagunekin ere hitz egin du Koldo Izagirrek joan den astean publikatu den lan horretan. Luzuriaga fundizioko historiak dira, pluralean, bakoitzaren kontakizunak lantokiko bizimoduaren ertz pila ikusteko modua ematen baitu: lan baldintzak, patroiarekin harremanak, sindikatuen jarduera, frankismoko eta trantsizioko klima politikoak fabrikari zuen eragina...

Victorio Luzuriaga Gipuzkoako enpresa garrantzitsuenetakoa izan zen XX. mendean. Milaka langile aritu ziren Pasaiako lantokian, baita Tafallan, Errenterian eta Usurbilen ere. Horrek egin zuen borroka obreroentzat erreferentziatzeko gune. Liburuan maiz errepikatzen da grebak eta lanuzteak deituzerakoan, eskualdeko lantokiek Luzuriagakoek zer egingo zuen jakin nahi izaten zutela, mobilizazioarekin bat egin edo ez erabaki aurretik.

Sindikatu guztietako ordezkariak ekiten zuten fabrikari noiz eta, sin-



INAKI BECERRA

Luzuriagako langileak Antxoko kaleetan barrena.


dikatuak debekatuta zeuden garaian. Ez dira gutxi vietnamitar kopiatutako panfletoen historiak, klandestinitatea, atxilotetak, langile komisioak. Eta aldaketa garrantzitsuak: sindikatuak legeztaztearekin asanbladatik afiliaziora pasatzea, adibidez; edo langileen eskubideen aldeko dinamikak bestelako kausekin uztartzean sortzen ziren eztabaidak. Gertakari horiek denak, agente aktibo izan ziren pertsonen ahotik.

Liburuaz nabarmendu litekeen ezaugarrietako bat horixe da beharbada, langileak agertzen direla lehen planoan. Enpresaren

jabeak ere aipatuko dira, ezin bestela, baina peoiekin edo ofizialekin izan zuten harremanaren bidez. Hautu kontzientea da, Izagirrek berak esplikatu du liburuko sarrean, testuinguru orokorragotik abiatuta: bere ustez Euskal Herrian antropologiak batez ere euskaldunon alderdi erlijioso, kultural eta linguistikoak aztertu izan ditu historikoki. “Barandiaranek, baserri-tarrari hitza hartu ziolarik, mitoak jaso zituen, ipuin fantastikoak. Azkuek inkesta linguistikoak egiten zituen. Aita Donostiak kantutegi bat osatu zuen han-hemen entzundako abestiekin...”.



FOTO VALENTIN



JOSETXO LINAZASORO

Langileen ahotik jaso du Koldo Izagirrek Luzuriagaren historia. Ezkerrean langileen ordezkariak bozgorailuarekin hizketan; eskuinean, Linazasoro aita-semeak tornuan.

“Bitxia da”, jarraitzen du idazleak, “zientzialariak omen ziren haiek errealitate literario bat jaso zuten, fantasiako mundu bat. Sineskeriaz ate, ipuinaz ate, hitzak ez zeukan baliorik. Beren informatazaille haiek ez zeukaten bizitza autonomorik, ez iritzi pertsonalik, ez sentimendurik. Herriak, edo herriaren kontzeptu batek, ito egin zuen gizakia”.

Ez da antropologoen hutsa bakarririk, sindikalismoari buruz idatzi diren historia liburu askok ere borroka ideologikoetan eta zentralen barne funtzionamenduan jarri dute letra larria, produkzio katetik jardun duten pertsonak atzeko planoan eta fokatu gabe lagaz.

Bestelakoak dira liburu honetan kontatzen direnak: lehen mailako futbolari izan ostean zuzendaritza sozialera iritsi zen Enrique Cerdan, bizi osoa borrokan pasa ostean

erretiroa hartuta bere eskubideen defentsan jarraitzen duen Javier Esnaola; Julian Okendo, Seat

“Neke handirik gabe konturatuko gara 1840-60an Londresen su eta kea ari ziren lantegi zikinilun haietako batean egin zutela lana gure gurasoek ehun urte geroago”

**Koldo Izagirre,
Liburuaren egilea**

1.400aren motor-blokeko tresneria nola egin zuten kontatzen fazinatuta; Angel Guisado, esplikatzen nola lehen egunean uzten zuen jendeak

lana, moldetik ateratzen zen burdin zopa ikustean.

“Luzuriagako langileon elkarrizketak irakurriz neke handirik gabe konturatuko gara 1840-60an Londresen su eta kea ari ziren lantegi zikinilun haietako batean egin zutela lana gure gurasoek, gure senideek, gure lagunek ehun urte geroago, kasik 1980ko hamarraldia iritsi arte” dio Koldo Izagirrek.

Haien hitzak jasoz, jornal baten bila sartu eta izerdi franko botata bere eskubideak irabazita atera zen belaunaldi baten erretratua eskaintzen du liburuak.

Luzuriagatik ateratako azken piezak dira. Eta burdinazkoek baino gehiago iraungo dute, datozen belaunaldiek langile hauen esperientzia inspirazio-iturri gisa erabiltzen asmatzen badute. ■



**Ekonomia jarduerak ez dira neutralak....
Baina badaude alternatibak!!!!**

Hernaniko Udala Fiare Banku Etikoaren bazkide egin da ekonomia sozial eta solidarioren aldeko hitzarmenean.

Informa zaitez zu ere!

Lehen hitzaldia: apirilaren 24an 19:00etan Hernaniko Udaletxeko Areto Nagusian



TERMOMETROA

BEHARSAREA

Lan bila bai, baina euskaraz

Getxoko Egizu euskara elkartearen ekimenez sortu zen Beharsarea 2011n: euskaraz lan egiteko norbaiten bila dabilena eta lan horretan interesa duen euskalduna harremanetan jartzeko sare birtuala. Harrezkero Bizkaian barrena zabaldu da ekimena.

| MARIJO DEOGRACIAS |

Argazkia: Beharsareak utzia

GURASOEN ESKARIARI erantzuteko asmoz ekin zioten orain dela hiru urte Beharsarea izango zenari bueltaka Bizkaiko Getxo inguruan. Hango euskara elkarteko aisialdi taldeari askotan galdetzen zioten ea ezagutzen zuten euskaldunik seme-alabei eskolak euskaraz emateko edo ume txikienak zaintzeko. “Gurasoek kezka hori zutela ikusita hasi ginen Beharsarea proiektua asmatzen”. Halaxe gogoratzen du Garazi Lopez de Uraldek. Beharsareko arduraduna da gaur egun eta Getxoko Egizu euskara elkarteko kidea.

Horrela sortu zuten Beharsarea.com. Hasieratik argi izan zuten ezin zirela eskola partikularrak edo ume zaintzarako lan eskaintzetara mugatu; euskaraz ez baitzaie umeei eta txakurrei bakarrik egiten. “Sektore gehiagotara heltzea zen gure helburua; merkataritzara edo ostalaritzara, esaterako. Izan ere, uda partean ikusi izan ditugu kartelak zerbitzari euskaldunak behar direla iragartzen, edo antzeko eskariak, eta irizpide hori kontuan hartuta eta herrian euskara sustatzeko asmoz, lansare hori garatzen hasi ginen”. Beharsarearen lana bitartekaritzara mugatzen da, hau da, euskaraz lan egiteko gai direnak eta euskaraz lan egiteko norbait behar duen hori harremanetan jartzera. Beharsarea ez da lan kontratazioarako agentzia, eta beraz, ezin du eskaintzen diren lan baldintzen edo jasotzen diren lan eskarien inguruko bermerik eman eta horren guztiaren berri argi ematen dute euren webgu-



Internet ez da euskarri bakarra euskaldunak harremanetan jartzeko. Ikastetxeetan ere informazioa zabaltzen dute.

nean. “Ez ditugu pertsona horiek ezagutzen eta ez dakigu benetan haiek euskaldunak diren, ezin garela-ko horretan sartu”, diote.

Proiektua pentsatzen 2010ean hasi ziren eta 2011ko apirilean jarri zuten martxan. Tarte horretan hainbat erabaki hartu zituzten, esate baterako, webgunean lan eskaintzen iragarkiak gaztelaniaz jar daitezkeela, baina lan bila ari denak, derrigorrez, euskaraz sartu beharko duela bere eskaria. “Ziurtatu nahi duguna da langileak euskalduna izatea; denda batean, adibidez, bezeroaren araberrakoa izango da hizkuntzaren erabilerak, baina eskolak emateko edo pertsonak zaintzeko, hor jada, beste

pertsonarengan ez dagoenean hizkuntza irizpidea, langileak marka dezala hartu-emanetarako hizkuntza euskara izango dela”. Horrek animatu zuen Getxoko Ane, baina aitortu digu, euskaraz justu samar aritzen dela-eta, iragarkiak ulertzeko nahikoa lan izan zuela. Hala ere, topatu zuen bere hiru alabei eskolako lanak euskaraz egiten laguntzeko mutiko bat. Are gehiago, sei bat laguni egin zien lan elkarriketa eta, azkenean, 30 urteko mutil batekin hasi ziren. “Oso gustura egon ginen. Bera euskalduna zen eta gure alabei eskolako lanak egiten laguntzen zien, nik ez baitut euskaraz egiten, pixka bat ulertzen dudan arren”. Anek berak

aitortu digunez, “ez da erraza izaten pare bat edo hiru orduz lan egiteko prest egongo den norbait aurkitzea, batez ere hortik bakarrik ezinezkoa delako bizitzea. Baina guri oso lagungarria zaigu eskola orduetatik kanpo umeekin euskaraz arituko den norbait izatea; eta jakinda ere gurekin denbora luzez ez direla arituko, eskertzekoa da era horretako lan poltsa gotea”.

Zaintzaile euskalduna gurago

Beharsarearen esperientzia Getxon hasi bazen ere, iaiztik hainbat herritarra zabaldu du ekimena Bizkaiko udal eta mankomunitateetako euskaraz zerbitzuen Alkarbide bilguneak: Balmaseda, Enkarterriak, Leioa, Erandio, Bilbo, Etxebarri, Lemoa, Igorre, Durangaldea, Maruri-Jatabe eta Laukiz ere sartu dira sarera. Horri esker, esaterako, Etxebarriko Ainarak ere aurkitu du bere ume biak zaintzeko neska euskalduna. “Herriko euskara zerbitzuan eskatua nuen ordurako lan poltsan izena emanda zeukaten euskaldunen erreferentzia, baina Beharsarearen berri izan nuen hantxe ere jarri nuen iragarkia eta berehala deitu zidaten”. Ainarak ere aitortzen du ez dela erraza “ordu pare batez bakarrik lan egingo dizunik denbora luzez kontratatzea, ez baita nahikoa bizirauteko”. Bere kasuan gainera, lanaldia aste batez goizez eta beste batez arratsaldean duenez, zaintzaileak ere lana txandaka egin behar du. “Umezaintzan arituko zena euskalduna izatea gurago nuen”, kontatu digu Ainarak. “Nahiago dugu lan bila dabilzanek euskaraz baldin badakite eta gure inguruan gutxienez, horri lehentasuna ematen diogu”. Horrexek animatu zuen Bilboko Ibone ere Beharsarean lana eskatzera. Bera begiralea da eta sarean nabigatzen aurkitu zuen Beharsarea. Ez du oraindik erantzunik jaso, baina eki-



2012an 111 lagunek eskatu dute lana sarean eta 14k lanerako jendea eskatu du.

mena interesgarria iruditu zitzaion, “ez baita erraz aurkitzen lan horretan aritzeko lan eskaintza askorik”. Algortako Galderrek ere eman du izena Beharsarean. “Egunkarian

“Oso gustura egon ginen. Bera euskalduna zen eta gure alabei eskolako lanak egiten laguntzen zien, nik ez baitut euskaraz egiten, pixka bat ulertzen dudan arren”

Ane
hiru alaben ama

ikusi nuen iragarkia eta hasieran bulegoaren bila ibili nintzen, gurago ditudalako aurrez aurreko hartu-emanak, baina kasu honetan Internet bidezko kudeaketa denez, bide hori erabili nuen”. Galderrek azpimarratu digunez, ekimenak badu gainera beste alderdi positibo bat: oso lokala dela. “Auzoka, herrika eta eskualdeka banatzen da eta horrek hurbiltasun puntua ematen

dizu”, diosku.

Ibone eta Galderrenak moduko lan eskariak eta Getxoko Anek eta Etxebarriko Ainarak egin zuten moduko lan eskaintzak dira Beharsarean nagusi. Eta, lan eskariari dagokionez ere, nabarmena da ume zaintza eta eskola partikularrak direla gehien eskaintzen diren egitekoak. Lopez de Uraldek oraintsu aurkeztu du 2012ko balorazio txostena eta han jaso dutenez, 125 iragarki jarri ziren guztira iaz: 111 lana eskatzekoak eta 14, berriz, lana eskaintzekoak. Horri lotuta, uztailea eta iraila dira eskari gehien egiten diren hilabeteak, “iraila partean gurasoak euren lan ordutegia eta seme-alaben autobus ordutegiak antolatu behar izaten dituztela-eta, eskaria ere gehitzen da”. Hala ere, hurrengo pausoa Beharsarea lan esparru gehiagotara zabaltzea litzateke, merkataritzara, ostalaritzara, eta beste sektoreetara: “Gure eskualdean zerbitzuen sektorea da nagusi, bigarren sektorerik ez dago, beraz, zaila da industria arlotik edo lehen sektoretik lan eskaintzarik jasotzea, baina horixe da gure erronka”.



Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure artean euskaraz BFA DFB

Prentsa independenteak asko dezake, herritarrekin

Komunikazioaren ikuspuntutik ere emango du zer ikasia Donostiako Aske Guneak: sare sozialek eta hedabide independenteek kontatu dute bertan gertatua, medio nagusiek estali duten hein berean. Bistan da, garai berriak bizi ditugu, baita komunikazioaren esparruan ere.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

“INOIZKO albisterik txiokatuena euskaraz eta ziurrenik ez dugu ikusiko hedabide gehienetan”. Asier Sarasua cibartarrak joan den igande goizean Twitter sare sozialean bidalitako mezua da, Ertzaintzak Lander Arbelaitz ARGIAko kazetariari egindako erasoak erakusten duen bideoari buruz. Dokumentu hori bezala, Donostiako Bulebarrean antolatu den mugimendu zibilari buruzko beste hainbat albistek, bideok eta argazkik ere milaka ikusle izan dituzte Interneten.

Joan den asteko gairik beroena izan da sare sozialetan baina, hedabide nagusiek, publikoek barne, ez diote tokirik egin. Medio batzuk izan ezik (*Berria*, *Gara*, *Nai*, *Info 7*, *Irutxu-loko Hitz*, ARGIA...), Segikoak izateaz akusatuta kartzelan sartu nahi zituzten Donostiako zortzi gazteen inguruan isiltasuna nagusitu da.

Isiltasuna? Ez. Ez da hitz egokia. 34.000 lagunek baino gehiagok ikusi dute Youtuben Bulebarreko Herri Harresiaren azken 20 minutuetan gertatutakoa erakusten duen ARGIAren bideoa (askoz gehiago izango dira hau irakurtzen duzunerako).

Aske Guneari buruzko informazioak mundu osora iritsi dira: Errusiako Ruptlyk, *Russia Today* hedabidearen albiste agentziak, Donostian grabatutako hainbat bideo zabaldu ditu. Twitter bidez Europako puntu askotara heldu dira berriak: Inglaterra, Herrialde Katalanak, Espainia, Frantzia, Italia.

Inflexio puntua hedabideentzat

Nola lortu dute Donostiako gazteek halako oihartzuna? Aske



#Askegunea eta gaiarekin lotutako beste etiketak bolo-bolo ibili dira sarean.

Gunea abian jarri eta berehala agertu zen kezka gaiak izan zezakeen jarraipen informatiboaz. Espainiako hedabideek isilaraziko zutela argi eduki zuten, gero jabetu ziren EITBK ere ez zuela informatuko. Eta Herri Harresia eraikitzearekin batera, harresi informatiboa gainetik pasatzeko estrategia prestatu zuten: atxilotzera zihoazen zortzi gazteen egoera esplikatzeko duen manifestua hainbat hizkuntzatarat itzuli; Bulebarrean bildutako jendea galdetu eta atzerriko hedabideei berri emateko gai ziren pertsonak lanean jarri; gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez Twitter kontuak sortu (apirilaren 16an itxi egin zizkieten, eraginkorrak izaten ari ziren seinale argiagorik?).

M15 edo Occupy mugimenduen antzeko komunikazio estrategia izan da, mezu positiboetan oinarritua, herritarrei ahotsa eman diena, momentu bakoitzean gertatzen ari zenarentzat Twitterreko etiketa egokia prest eduki duena (#resist8 eta #basque8 eguneko tag erabilien artean izan ziren Espainiako Estatuan). Gainera, igorritako mezuek kondenatutako gazteen

egoera pertsonalari garrantzia eman diote, maila estrategikoan erabili dute atxiloteten giza-drama, Segiko militanteen kideko ez diren jendeak ere erakarrit.

Komunikazioaren ikuspuntutik ikasgai asko eman ditu Aske Guneak. Inflexio puntua izango da euskal hedabideen historian. Kazetaritza independenteak herritarren laguntzaz asko dezake. Orain, fenomeno puntuala izatetik egunerokora nola pasa asmatu behar da. ■



Hekimenek ontzat jo du iazko diru-laguntza mantentzea, biziraupenerako nahikoa izan ez arren

HEKIMEN elkarteak euskara hutsean ari diren 50 hedabide baino gehiago biltzen ditu. Hainbat helburu dauzka, eta tartean garrantzi handikoa diru-laguntzen politiketan eragitea. Azken hilabeteetan elkarteak bilera izan ditu Eusko Legebiltzarreko alderdi politikoetako ordezkariekin eta Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuen gaia izan da nagusi.

Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu proiektuak 4.875.000 euro aurreikusi ditu euskarazko hedabideentzat 2013rako, iazko kopuru bera. Euskaraz jarduten duten hedabideek urte luzez eta etengabe aldarrikatu dute erakunde publikoek hitzez bai, baina askotan praktikan ez dituztela hedabideok estrategikotzat hartu. Zentzu horretan, Hekimenek

Eusko Jaurlaritzak egindako ahalegina, alegia, euskal hedabideen garrantzia eta estrategikotasuna aitortzea ontzat hartu ditu. Dena dela, azken urteetan %15 jaitsi da euskal hedabideentzako diru sarra eta erakunde publikoek ezarriko duten publizitate beherakada iragarrita dago. Hekimenek argi dauka “murrizketa etengabekoan erdian iazko kopuruari eustea, sektorearen etorkizuna bermatzeko nahikoa ez dela”.

DANI BLANCO



Hekimeneko hedabideetako ordezkariak.

Bahea

Itziar Diez de Ultzurrun Sagalák
<http://31eskutik.com> blogean
esanak:

“Bestalde, gogoan du nola lotsagorritu zen beste behin, irakasle talde handi samar bat bazkaltzeko elkartu ziren batean, berak auskalo nongo futbol-zelaian ez dakit zer gertatua zela aipatu eta aldameneko lankidea iji-ajaka hasi zitzaionean esanez oso grazioso zela, *futbol-zelaia*, ene! hori zela hori hizkera ponposo eta dotorea, ‘gurean beti kanpodefutboleant esan dugu’; iji eta aja, nor eta Mikel, departamentuko azken bilera-ko bere esaldia ‘*las últimas vicisitudes y contingencias del proceso generativo de la actual situación tienen su fundamento no tan solo en meros factores coyunturales sino también y en mayor medida en causas cuyo origen es indiscutiblemente estructural*’ aktan hitzez hitz jaso ez zelako zalapartaka ibili zena, departamentuko (gaztelaniazko) dokumentu batzuen narraskeria salatuz bide-nabar”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Noiz da greba orokorrerako garaia?

SINDIKATU ABERTZALEEK eta mugimendu sozial ugari-rik jadanik erabaki dute Hego Euskal Herriko ekonomia eta enplegua hondoratzen ari diren politika ekonomiko kapitalisten kontrako greba orokorraren data: maiatzaren 30a. Ohikoa den legez, bai patronalak baita Gasteizko eta Iruñeko administrazioek ere, greba orokorra arbuia dute. Euren hedabideek diote ez dela “momentua grebarako” eta ez dutela “ezer onik ekartzen”, “gizartearen kontra” doala alegia. Urkulluren Gobernuako Enplegu eta Gizarte Politiken sailburuak, Juan Mari Aburtok, galdegin du ea “greba orokorraren hurrengo egunean zer. Zerbait konpondu dugu?”.

Patronalari eta EAJ, PP eta beste hainbat alderdiri hauxe galdetu beharko litzaieke: orain bizi dugunarekin ez bada momentua greba orokorrerako, zein da zuzentzat momentu egokia? Ez gaitezen inozoak izan. Patronalarentzat, EAJrentzat, PPrentzat eta beste alderdi batzuentzat, kapitalismoaren kudeatzaile diren aldetik, deialdi bat dagoen bakoitzean “orain ez da

momentua” dioten arren, haientzat inoiz ez da momentua!

Greba orokorrerako momentu egoki hori erabaki behar dutenak, aldiz, sindikatuak eta mugimendu sozialak dira. Eta egin dute. Ondo legoke beste sindikatu batzuk, CCOO eta UGT kasu, behin informazioa jasota, grebarekin bat egingo balute, ahalik eta zabalena izan dadin. Greba eginik, gerta liteke epe motzerako ondorioak izatea, baina baita luzera begirakoak ere. Zenbat eta greba zabalagoa eta batuagoa, orduan eta emaitza hobekak lortuko dira. Edozein modutan, greba inoiz ez da porrota. Kapitalismoak eta bere kudeatzaileek kontra egiten badiote, herri sektoreek eta langileriak duintasuna mantenduko dute sikiera. Ez dira basapizti kapitalistaren aurrean belaunikatuko. Hurrengo egunean, grina gehiagoz borrokatuko dute!

Juan Mari Arregi



Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Legea eta injustiziaren lehia

ASKE GUNEAN joan den astean izandako sei gazteen atxiloketak eta zeregin horretan izandako gertakizunek, Euskal Herrian egoerak aldatzen jarraitzen duela erakusten dute. Ezker abertzaleko gazteen mugimendu zabalak, modu praktikoa eta gaurkotuan erakutsi du aldaketa hori.

Desobediencia zibila eta erresistentzia baketsuarena da Aske Gunearekin lau haizetara zabaldu duten mezu indartsua. Eta eragina lortu dute gizarte mailan, nahiz eta oraindik bidea egin beharko duten gizarte eremu zabalagoetara iristeko. Jarraik, Haikak edo Segik gizarteko esparru oso zabaletan irudi bat izan dute, Ernaik oinordekotza horren zati bat bereganatu du eta hori nekez ezaba daiteke gaue-
tik egunera.

Alde horretatik, Aske Gunea inflexio puntu gisa definitu dute berau bultzatu duten gazteek eta kanpotik ere hala perzibitu da. Orain ikusi beharko da horrek zer garapen duen, baina jarrera, molde eta estrategia hauek berritzaileak dira –15M eta hauek bezala, gizarteko beste alor askotan ematen ari dena– eta herritarren buru eta bihotzak zabaltzeko indarra dute, beti ere, atzean kausa justu bat edo injustizia bat dagoela irudikatzen azal eta mamirik bada. Eta gazte hauen kasuan bada.

JARDUERA POLITIKOAK eraman ditu kartzelara zortzi gazte hauek, eta horrek preso politikoez gain, kontzientzia presoak bihurtzen ditu. Estatuaren “dena da ETA”-k legezko egiten ditu gazte hauen –eta sare berean harrapatutako gainerakoek– espetxeratzea, baina ez justua, eta euskal gizartearen gehiengo oso zabalak sarri erakutsi du ez dagoela ados “dena da

ETA” horrekin. Beste kontu bat da, ados ez egon arren, zigortutakoekin elkartasuna eskaintzeraino iristea. Baina egoeraren sorrera eta oinarria erabat injustua da eta horren gainean ezin da ez justiziarik ez egoera berririk eraiki.

Horregatik, egoera honek oso ataka estuan jartzen ditu Ertzaintza eta orain berau gobernatzen duen EAJ, legezko bai baina injustuak diren erabakiak betearazi behar dituztelako. Noiz arte justifikatu daiteke zerbaiten aurka zaudela baina legeak bete behar dituzula? Noiz arte da garrantzitsuagoa legea kontzientzia baino? Zertan laguntzen du elkarbizitza eta bake bideetan “dena da ETA” hori bete behar izateak? Nondik begiratu, erantzun asko izango dituzte galdera hauek, baina 200 bat pertsona doktrina horrek auzipetu eta espetxeratu zain badira, izango da kontu hauei buruz sarri eta zabal hitz egiteko betarik. Luze-zabal jardun beharko den moduan Ertzaintzaren jokaera askori buruz.

LANDER ARBELAITZ ARGIAko kazetariak badaki zerbait bitarteko horiei buruz. Medio honek bidali zuen Arbelaitz Aske Guneako gertakizunen berri ematera eta horretan ari zen hilaren 19ko goizaldean hainbat ertzainek eraso zutenean. Bideoan primeran ikusten da (<http://www.argaia.com/albiste/lander-arbelaitz-erasoa>), ez du azalpen gehiegirik behar. Ertzaintza Aske Gunean sartzean kazetaria bere lanean ari da sakelakoa eskutan, hiru ertzain zuzenean doaz beregana eta eraso egiten diote, telefonoa bultzada batez lurrera botaz, bera ere lurrera botaz, eta lepoan eta eskuan zauriak eraginez. Bideoan oso argi ikusten da nola

Arbelaitz kazetari agiria erakusten ari den, baina ertzainei berdin zaie eta bultzaka –berriz lurrera botaz– eramaten dute Bulebarreko kioskoraino. Beste kazetari batzuekin batera, eta bere borondatearen aurka, han izan zuten ordubetez.


Legeak babesten du informazio eskubidea, herrialde demokratiko baten oinarrietakoa da eta Ertzaintzarena moduko jarrera hauek onartezinak dira zuzenbide estatuan. Ulertezina da legeak babestu behar dituenak legea bera urratzea, kasu honetan ertzainen aldetik nabarmen gertatzen dena. Gure agintariei biziki gustatzen zaie ikustea Siriako Alepon, Libian edo Egiptoko Tarhirk-eko plazetan zer gertatzen den, baina antza ez zaie hainbeste gustatzen gure plazetan gertatzen dena ikus dadin, beste la nekez gertatuko liriteke behin eta berriz kazetarien aurka gertatzen diren eraso hauek. Ertzaintzaren gisa honetako parte-hartzeetan, ertzain askoren iruzkin eta jarrera biolento eta matxista (hainbat emakumek irain sexistak salatu dituzte) ikus-entzunda, Herrizaingo Sailak –eta berarekin EAEko gizarteak– arazo handia du bere baitan. Salagarria benetan, era horretako ertzainek ezin dituzte herritarrak zaindu, ez dakite, eta beraz lanbidetik baztertu beharko lituzkete. Ertzaintzak, Herrizaingo Sailak, eman beharko luke azalpenen bat gertakizun hauei buruz.

ARGIAk bihotzez sinesten du informazio eskubidea, hamar-kada asko darama berau gauzatzeko, eta zeregin horretan jarraituko du lanean, irmo, gogotsu eta ilusio handienarekin. ■



ASTE HONETAKO

zozketak



TXALOk aurkezten du

HIL arte BIZI

antzerkia BEGOÑA BILBAO

KER GALARTZA SARA COZAR JOSEBA USABIAGA

Antzerkia
Hil arte bizi

Maiatzak 11, larunbata 22:00tan
Sutegi Kultur Etxeko Auditorioan
USURBIL

5 harpidunentzat
bina sarrera

1

INGURU ABENTURA

Inguru Abentura

Puenting (I. maila)
4 harpideentzako bina saio

San Juan kalea, 18
Albeniz ARABA

www.inguruabentura.com

2

EUREKA!
zientzia museoa

3 harpidunentzat
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

3

Bilboko Euskal Museoa

3 harpidunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

4

Okatxu

2 kamiseta opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2364. Argia)

BILBOKO KAFE ANTZOKIA

- Aniturri Institutua (Agurain)

DONOSTIAKO AQUARIUM

- Ander Epelde Ezenarro (Soraluze)
- Santurtziko Udal Euskaltegia (Santurtzi)
- German Kortabarria Igartua (Getxo)
- Jose Antonio Zubeldia Gaztañaga (Donostia)

OKATXU komikia

- Jose Felix Zamakona Aranguren (Markina-Xemein)
- Sabina Arruabarrena Sukia (Hondarribia)

JOSU BERGARA Katiuska gorriak liburua

- Josu Martinez Martinez (Bilbo)
- Lourdes Iruretagoiena Laka (Zarautz)
- Orexako Udal Liburutegi (Orexa)
- Kepa Gorordo Basaras (Durango)
- Xabier Iriarte Ansorena (Hernani)

EKAINBERRI

- Mila Apeztekea Loiarde (Hernani)
- Iñaki Sagasta Arana (Arrasate)
- Iruñezar Aek Euskaltegia (Iruñea)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30
Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com
www.argia.com/gunea

Gunea

argia



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com